**Esp. kodea**: 2023HORD0004

**Gaia:** UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA, BIDE PUBLIKOA TERRAZEKIN (MAHAI-AULKIEKIN) ETA BESTE INSTALAZIO BATZUEKIN OKUPATZEA ARAUTUKO DUENA.

| ORDENANTZA PROIEKTUA | | PROYECTO DE ORDENANZA |
|---|---|---|
| **ARRASATEKO ERABILERA PUBLIKODUN EREMUETAN OSTALARITZAKO ETA MERKATARITZAKO ELEMENTUEKIN EGIN DAITEKEEN KALE OKUPAZIOA ARAUTZEN DUENA.** | | **ORDENANZA REGULADORA DE LA OCUPACIÓN DE LA CALLE CON ELEMENTOS HOSTELEROS Y COMERCIALES EN LAS ZONAS DE USO PÚBLICO DE ARRASATE.** |
| **AURKIBIDEA** | | **INDICE** |
| ***Zioen azalpena*** | | ***Exposición de motivos*** |
| **I. KAPITULUA. HELBURUA, EREMUA ETA ZER ARAUTZEN DEN** | | **CAPITULO I. OBJETO, ÁMBITO Y QUÉ REGULA** |
| 1.artikulua. Ordenantzaren helburua | | Artículo 1. Objeto de la Ordenanza |
| 2. artikulua. Aplikazio eremua | | Artículo 2. Ámbito de aplicación |
| 3. artikulua. Zer arautzen da. | | Artículo 3. Qué se regula |
| 4. artikulua. Kanpo gelditzen dira. | | Artículo 4. Quedan excluidas |
| **II. KAPITULUA. UDAL BAIMENA: EZAUGARRIAK ETA ZER ARAUTZEN DEN** | | **CAPITULO II. LICENCIA MUNICIPAL: CARACTERÍSTICAS Y LÍMITES GENERALES** |
| 5. artikulua. Udal Lizentzia | | Artículo 5. Licencia municipal |
| 6. artikulua. Lizentziaren ezaugarriak | | Artículo 6. Características de la autorización |
| 7. artikulua. Lizentziaren muga orokorrak | | Artículo 7. Límites generales de la licencia |
| **III. KAPITULUA. INSTALAZIO ETA ELEMENTUEN BALDINTZAK** | | **CAPITULO III. CONDICIONES DE LA INSTALACIÓN** |
| 8.artikulua. Irisgarritasuna | | Artículo 8. Accesibilidad |
| 9. artikulua. Terraza elementuak | | Artículo 9. Elementos de terraza |

| | | |
|---|---|---|
| 10. artikulua. Zein elementu ez den onartuko | | Artículo 10. Elementos no admitidos |
| 11. artikulua. Terrazen baldintza edo mugak | | Artículo 11. Condiciones o límites de las terrazas |
| 12. artikulua. Altzarien ezaugarriak | | Artículo 12. Características del mobiliario |
| **IV. KAPITULUA. MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUAK** | | **CAPITULO IV. ESTABLECIMIENTOS COMERCIALES** |
| 13. artikulua. Merkataritza establezimenduen hedapena | | Artículo 13. Condiciones de los establecimientos comerciales |
| **V. KAPITULUA. BESTELAKO BALDINTZAK** | | **CAPITULO V. OTROS REQUISITOS** |
| 14. artikulua. Hizkuntza baldintzak | | Artículo 14. Condiciones Lingüísticas |
| 15. artikulua. Berdintasun baldintzak | | Artículo 15. Condiciones de Igualdad |
| **VI. KAPITULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA** | | **CAPITULO VI. REGLAMENTO JURÍDICO** |
| 16. artikulua. Udal lizentzia | | Artículo 16. La licencia municipal |
| 17. artikulua. Eskabidea eta horrekin batera aurkeztu beharrekoa | | Artículo 17. La solicitud y la documentación a presentar junto a la misma |
| 18. artikulua. Ordutegiak | | Artículo 18. Horarios |
| 19. artikulua. Udalaren betebeharrak | | Artículo 19. Obligaciones del Ayuntamiento |
| 20. artikulua. Lizentziaren titularraren betebeharrak | | Artículo 20. Obligaciones del titular de la licencia |
| **VII. KAPITULUA. DIZIPLINA-ARAUBIDEA** | | **CAPITULO VII. RÉGIMEN DISCIPLINARIO** |
| 21. artikulua. Ikuskaritza | | Artículo 21. Inspección |
| 22. artikulua. Baimenik gabeko instalazioak | | Artículo 22. Instalaciones sin licencia |
| 23. artikulua. Lizentziaren baldintzak ez betetzea | | Artículo 23. Incumplimiento de las condiciones de la licencia |

| | | |
|---|---|---|
| 24. artikulua. Exekuzio subsidiarioa<br><br>25. artikulua. Arau-hausteak<br><br>26. artikulua. Zigorrak<br><br>27. artikulua. Arau-hausteen mailaketen irizpideak<br><br>28. artikulua. Fidantzak<br><br>**XEDAPEN IRAGANKORRAK**<br><br>**AZKEN XEDAPENA** | | Artículo 24. Ejecución Subsidiaria<br><br>Artículo 25. Infracciones<br><br>Artículo 26. Sanciones<br><br>Artículo 27. Criterios de escala de sanción<br><br>Artículo 28. Fianzas<br><br>**DISPOSICIONES TRANSITORIAS**<br><br>**DISPOSICIÓN FINAL** |
| **ZIOEN AZALPENA**<br>Azken urtetan ohiturak aldatuz doaz, gero-eta joera handiagoa baitago, aisialdi modura, herriko kale eta plazetako terraza edo elkarguneetan biltzeko. Horrez gain, merkatari eta ostalariek, kalitatezko arreta eta zerbitzu eguneratua emateko asmoarekin, euren zerbitzuak ikusarazi edo kaleratzea eskatzen dute. Horrek guztiak, batzuetan, talka egin izan du oinezkoen, zein inguruko bizilagunen ongizatearekin.<br><br>Aldi berean, Udalari dagokio herritarren atsedena eta bizi-kalitatea zaintzeaz gain, gure kale, plaza, parke eta espazio libreen erabilera publikoa eta hauetarako sarrera-irteerak eta ibilbideak denontzat egokiak eta irisgarriak direla bermatzea.<br><br>Horiek horrela, beharrezko ikusten da egun Arrasaten ez daukagun ordenantza batekin erregulatzea bai ostalaritzak, bai merkataritza- | | **EXPOSICION DE MOTIVOS**<br>En los últimos años las costumbres han ido cambiando y existe una tendencia cada vez mayor a reunirse, como forma de ocio, en terrazas o puntos de encuentro de las calles y plazas del municipio; además, las/os comerciantes y hosteleras/os, con la intención de ofrecer una atención de calidad y un servicio actualizado, solicitan visibilizar o sacar al exterior sus servicios. Todo ello ha chocado en ocasiones con el bienestar de las personas viandantes y de las vecinas y vecinos de los alrededores.<br><br>Al mismo tiempo, corresponde al Ayuntamiento, además de velar por el descanso y la calidad de vida de la ciudadanía, garantizar que el uso público de nuestras calles, plazas, parques y espacios libres, así como los accesos y trayectos hacia estos, sean adecuados y accesibles para todas las personas.<br><br>Por ello, se considera necesario regular, mediante una ordenanza que actualmente no disponemos en Arrasate, la ubicación de los |

| | | |
|---|---|---|
| establezimenduek, kanpoan jartzen dituzten altzari eta elementuen kokapena eta betebehar guztiak, oreka baten barruan, bateragarri izan daitezen kalearen erabilera publiko orokorrarekin.<br><br>Ondorioz, Arrasateko Udalak, araudia egungo errealitate horretara egokitzeko, ordenantza hau idatzi du, honako balio eta irizpideen oinarrian:<br>• Herritar, zein ostalari eta merkatariek argi eduki dezatela zeintzuk diren bakoitzaren eskubide eta betebeharrak.<br>• Lehentasuna ematea erabilera komun orokorrari, oinezkoen joan-etorrietan arreta berezia jarrita, eta, erabilera publikorako espazioetarako sarbideetan mugak ekidinda, horietan erraz, eroso eta segurtasunez ibili ahal izateko, irisgarritasun irizpideak kontuan izanda.<br>• Zerbitzu publikoen funtzionamendua bermatzea, eta, bereziki, larrialdietako zerbitzuena.<br>• Pertsonek ingurumen osasungarri bat eduki eta gozatzeko duten eskubidea bermatzea.<br>• Zuhaitzak, herri paisaiako landaretza, parterreak eta hiri altzariak babestea.<br>• Ostalari eta establezimenduetako titularrek beharrezkoa duten udal baimena eskuratutakoan, urtero baimen hori berritzeko tramite administratiboa erraztea, kontrako arrazoirik ez badago bederen.<br>• Udalak ebatsitako baimen lizentzia argia izan dadila, elementuak jartzeko eremua | | muebles y elementos que tanto la hostelería como los establecimientos comerciales colocan en el exterior, así como sus deberes, de manera equilibrada para que resulten compatibles con el uso público general de la calle.<br><br>En consecuencia, el Ayuntamiento de Arrasate, para adaptar la legislación a la realidad actual, ha redactado esta ordenanza en base a los siguientes valores y criterios:<br>• Que la ciudadanía, la hostelería y el comercio tengan claro cuáles son los derechos y obligaciones de cada parte.<br>• Priorizar el uso común general, prestando especial atención al tránsito peatonal, y evitando limitaciones en los accesos a los espacios de uso público, a fin de que se pueda transitar por ellos de forma fácil, cómoda y segura, teniendo en cuenta los criterios de accesibilidad.<br>• Garantizar el funcionamiento de los servicios públicos y, especialmente, el de los servicios de emergencia.<br>• Garantizar el derecho de las personas a disponer y disfrutar de un entorno ambiental saludable.<br>• Proteger los árboles, la vegetación del paisaje urbano, los jardines y el mobiliario urbano.<br>• Una vez obtenido el permiso municipal necesario por parte de las/los titulares de los establecimientos hosteleros y comerciales, facilitar la tramitación administrativa de la renovación anual del permiso, siempre que no exista razón que lo impida.<br>• Que la licencia de autorización emitida por el Ayuntamiento sea clara, con el área de colocación de los elementos |

| | | |
|---|---|---|
| plano batean marraztuta izango duena, herritarrek, tabernari zein merkatariek ezagutzeko. | | dibujada en un plano, para conocimiento de la ciudadanía, hostelería y comercio. |
| Ordenantza honek, hortaz, Arrasateko erabilera publikoko espazioetako ostalaritza eta merkataritza arloko erabilerak arautzen ditu, beti ere, espazio horien erabilera komunaren eta irisgarriaren babesari eutsiz, herritar guztiei baitagokie, berdin eta bereizkeriarik gabe. | | Esta ordenanza, por tanto, regula los usos de la hostelería y del ámbito comercial en los espacios de uso público de Arrasate, manteniendo siempre la protección del uso común y accesible de dichos espacios, que corresponde a todas las ciudadanas y ciudadanos por igual, y sin discriminación. |
| Dena den, merkatari eta ostalariek araudi hau ezagutu eta aplikatzea bezain garrantzitsua da herritarren kontzientziazioa. Izan ere, gatazka asko sortzen baitira, establezimenduen erabilera egiterakoan, bezeroen (azken batean herritarren) jokabide eta portaeren ondorioz. | | Ahora bien, tan importante como que las y los comerciantes y hosteleras conozcan y apliquen esta normativa, es la concienciación ciudadana. Y es que, muchos conflictos surgen a la hora de hacer uso de los establecimientos, como consecuencia de la conducta y comportamiento de la clientela. |
| Aipatutako balio horiez gain, Arrasateko Euskara Plana era aintzat hartuta, Udalak herri euskaldunaren izaera indartu eta proiektatu behar du. Ondorioz, irizpide hori kontuan hartzeko elementu bat izango da, merkataritza eta ostalaritza alorreko establezimenduek bereziki zaindu beharko dutena. Horretarako tresna ere bada ordenantza hau. | | Además de los valores mencionados y teniendo en cuenta el Plan de Euskera de Arrasate, el Ayuntamiento debe reforzar y proyectar el carácter euskaldun del municipio. En consecuencia, este será un criterio a tener en cuenta, que deberán cuidar especialmente los establecimientos del ámbito del comercio y de la hostelería. La presente ordenanza es también una herramienta para dicho fin. |
| Modu berean, 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateratua onartzen duenak aipatzen dituen printzipioei jarraituta, genero ikuspegiaren txertaketa aintzat hartuko da Euskal Herriko aginteen jarduketetan, baita ordenantza honen erabilpen eta ondorioetan ere. | | Del mismo modo, siguiendo los principios mencionados por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y de la Ley para vivir sin violencia machista contra las mujeres, se tendrá en cuenta la incorporación de la perspectiva de género en las actuaciones de las autoridades del País Vasco, así como en la aplicación y efectos de esta ordenanza. |
| Ordenantza hau 7 kapitulutan dago zatikatuta, guztira 28 artikulurekin, xedapen iraunkor bat eta azken xedapenarekin. | | Esta ordenanza se divide en 7 capítulos, con un total de 28 artículos, una disposición transitoria y una disposición final. |

Aurreko guztia kontuan hartuta, aipatu behar da ordenantza honek hautemandako beharrei erantzuteko ezinbesteko erregulazioa bakarrik jasotzen duela, eskubideak gutxien mugatzen dituen araua izanik. Testua, gainerako antolamentu juridikoa (estatukoa, erkidegokoa eta herri mailakoa) aintzat hartuta eta horiekin koherentzia mantenduta idatzi da, aldez aurreko kontsulta publiko eta jendaurreko epe baten ondoren. Bere aplikazioak beharrezkoak ez diren administrazio-kargak saihesten ditu, eta baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatzen du.

Lehenengo kapituluak ordenantzaren helburuak, aplikatzeko eremua eta zer arautzen duen azaltzen ditu.

Bigarren kapituluak  udal baimenaren ezaugarri eta mugak aipatzea du helburu.

Hirugarren kapituluan, instalazioen baldintzak azaltzen dira: alde batetik ostalaritzako terrazen elementuak eta instalazio horien baldintza eta mugak; bestetik, altzarien ezaugarriak.

Laugarren kapituluak, aldiz, merkataritzako establezimenduen hedapenak bete beharreko ezaugarriak arautzen ditu.

Bosgarren kapituluak hizkuntza baldintzei eta berdintasunaren printzipioei egiten die erreferentzia.

Teniendo en cuenta todo lo anterior, cabe mencionar que esta ordenanza contiene la regulación imprescindible para atender la necesidad detectada, no habiendo otras medidas menos restrictivas. Su redacción es coherente con la legislación estatal, autonómica y local, generando un marco normativo estable y predecible, cuya aplicación evita cargas administrativas innecesarias y racionaliza la gestión de los recursos públicos. Ha sido redactada tras un consulta pública previa y un plazo de exposición pública, garantizando así su transparencia.

El primer capítulo se refiere a los objetivos de la ordenanza, ámbito de aplicación y lo que regula.

El capítulo segundo tiene por objeto aludir a las características y límites de la licencia municipal.

El capítulo tercero regula las condiciones de las instalaciones: por un lado, los elementos de las terrazas de hostelería y las condiciones y limitaciones de estas instalaciones; por otro lado, las características del mobiliario.

El cuarto capítulo regula las instalaciones exteriores de los establecimientos comerciales.

El capítulo quinto hace referencia a las condiciones lingüísticas y a los principios de igualdad.

El capítulo sexto determina el régimen jurídico. Las solicitudes de licencia y documentación a presentar, las condiciones de las licencias, su

| | | |
|---|---|---|
| Seigarren kapituluak, araubide juridikoa zehazten du. Lizentzia eskaerak eta aurkeztu beharreko dokumentuak, lizentzien baldintzak, lizentziaren indarraldia, bete beharreko ordutegiak eta lizentziaren titularraren eta udalaren betebeharrak.<br><br>Zazpigarren kapituluak, diziplina-araubidea zehazten du, 1/2023 Legean, martxoaren 16koan, Euskal Administrazio Publikoen zigortzeko ahalmenari buruzkoan, eta 7/1985 Legean, apirilaren 2koan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoan oinarritutan. Besteak beste, lizentziarik gabe aritze eta lizentziaren baldintzak ez betetzea, exekuzio subsidiarioa, arau hausteak, zigorrak eta fidantza.<br><br>Bukatzeko, xedapen iragankorra ordenantzara egotzekoari buruzkoa, eta azken xedapena ordenantza indarrean sartzeari buruzkoa ageri dira. | | vigencia, horarios a cumplir, así como las obligaciones de la titular de la licencia y del Ayuntamiento.<br><br>El capítulo séptimo determina el régimen disciplinario en base a la Ley 1/2023, de 16 de marzo, de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas Vascas y la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local. Entre otros, el ejercicio de la actividad sin licencia, el incumplimiento de las condiciones de la licencia, la ejecución subsidiaria, las infracciones, sanciones y la fianza.<br><br>Por último, la disposición transitoria se refiere a la adaptación a la ordenanza y la disposición final se refiere a su entrada en vigor. |
| **I. KAPITULUA. HELBURUA, EREMUA, eta ZER ARAUTZEN DEN**<br>***1. Artikulua. Ordenantzaren helburua***<br>Ordenantza honen helburua da bide publikoan eta erabilera publikoko zoru pribatuetan ostalaritzako terrazak, komertzioen erakustokiak edo horien instalazio osagarriak jartzeko araubide juridikoa eta teknikoa ezartzea; hori guztia bateragarria izan dadin espazioen erabilera publiko orokorrarekin. | | **CAPÍTULO I. OBJETO, ÁMBITO Y QUÉ REGULA**<br><br>***Artículo 1. Objeto de la Ordenanza***<br><br>La presente Ordenanza tiene por objeto establecer el régimen jurídico y técnico para la instalación de terrazas de hostelería, expositores comerciales o sus instalaciones complementarias en la vía pública y en suelos privados de uso público, de forma que resulte compatible con el uso público general de los espacios. |
| ***2. Artikulua. Aplikazio eremua***<br>Ordenantza Arrasateko erabilera publikoko espazio ireki guztiei aplika dakieke (kaleak, plazak, espazio libreak, pasabideak, arkupeak, | | ***Artículo 2. Ámbito de aplicación***<br><br>La Ordenanza es aplicable a todos los espacios abiertos de uso público de Arrasate (calles, plazas, espacios libres, pasarelas, |

| | | |
|---|---|---|
| etab.), izan titular publikodunak, izan titulartasun pribatuko erabilpen publikodunak. | | soportales, etc.), tanto de titularidad público como de titularidad privada de uso pública. |
| ***3. Artikulua. Zer arautzen da***<br>Alde batetik, ostalaritza-jardueren inguruetan kokatzen diren terrazak eta horiek osatzen dituzten elementu zein altzari lagungarriak arautzen dira.<br><br>Bestetik, gainerako merkataritzako establezimenduen inguruan kokatzen diren kanpo instalazioak osatzen dituzten elementuak ere araupetzen dira:<br>a) Frutategi eta antzeko moduluak: jakiak erakusteko erabiliko diren jasotzeko moduko elementuak.<br><br>b) Bestelako merkataritza jardueretako moduluak: bestelako produktuak erakusteko erabiliko diren jasotzeko moduko elementuak , panelak, lorontziak eta apaingarriak. | | ***Artículo 3. Qué se regula***<br>Por un lado, se regulan las terrazas ubicadas en el entorno de las actividades hosteleras y los elementos y mobiliarios auxiliares que las componen.<br><br>Por otro lado, se regulan los elementos que componen las instalaciones exteriores que se ubican en torno al resto de establecimientos comerciales:<br>a) Módulos de fruterías y similares: elementos que puedan ser recogidos y que se utilizarán para la exposición de alimentos.<br><br>b) Módulos de otras actividades comerciales: elementos que puedan ser recogidos, desmontables, paneles, macetas y adornos que se utilizarán para la exposición de otros productos. |
| ***4. Artikulua. Kanpo gelditzen dira***<br>Araudi hau ez zaie aplikatuko Udalaren emakida bidez garatzen diren jarduerei, ezta noizbehinkako ospakizun edo jaietan Udalaren baldintzen arabera garatzen direnei ere; zirkoa, barrakak, txosnak, eta abar, esateko. Emakidak diren kasuetan, kontzesioaren baldintza-orrietan jasoko dira bete beharreko baldintzak. | | ***Artículo 4. Quedan excluidas***<br>El presente Reglamento no se aplicará a las actividades que se desarrollen en régimen de concesión municipal, así como a las actividades que se desarrollen con arreglo a las condiciones del Ayuntamiento en celebraciones o fiestas ocasionales, tales como circos, barracas, txoznas, etc. En caso de las concesiones, los pliegos de condiciones de las mismas recogerán las condiciones a cumplir. |

| | | |
|---|---|---|
| **II. KAPITULUA. UDAL BAIMENA: EZAUGARRIAK ETA MUGA OROKORRAK**<br><br>***5. Artikulua. Udal lizentzia***<br>Bide publikoaren okupazio eta aprobetxamenduek “erabilera komun bereziaren” kategoria dute, eta, ondorioz, terraza zein erakustoki komertzialekin espazioak okupatu ahal izateko eskubidea lortu beharko da, hau da: beharrezkoa izango da udalak aurretiaz emandako ahalbidetze-titulua edo baimena eskuratzea okupazioa gauzatu ahal izateko, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legean aurreikusitakoarekin bat etorriz.<br>Baimen horietan, eskatzaileak ez du lehendik lurzoru publikoa okupatzeko eskubiderik, eta Udala izango da, segurtasun publikoaren, oinezkoen joan-etorriaren, atsedenaren, ingurumenaren eta herri-estetikaren defentsan, interes publikoa baloratuz, baimen horiek ematea edo ez ematea erabakiko duena; baita, lizentziako baldintzak ez betetzeagatik horiek errebokatzeak ekar ditzakeen mugak edo baldintzak ezarriko dituena.<br><br>Beraz, baimena, edozein elementu erabilera publikodun zoruan ezarri aurretik eskatu eta lortu beharko da, interes publikoaren mende egongo da, eta, ondorioz, lizentzia jasotzeak ez dio titularrari, beste aldi baterako, inolako eskubide edo itxaropen legitimorik ekarriko. | | **CAPÍTULO II. LICENCIA MUNICIPAL: CARACTERÍSTICAS Y LIMITACIONES GENERALES**<br><br>***Artículo 5. Licencia municipal***<br>Las ocupaciones y aprovechamientos de la vía pública tienen la categoría de "uso común especial", por lo que se deberá obtener el derecho a ocupar espacios con terrazas y expositores comerciales, es decir, será necesario obtener el título habilitante o la autorización previa del ayuntamiento para materializar la ocupación, de acuerdo con lo previsto en la Ley 33/2003, del Patrimonio de las Administraciones Públicas.<br><br>En estas autorizaciones, el/la solicitante no tiene derecho a la ocupación previa de suelo público, y será el Ayuntamiento quien, en defensa de la seguridad pública, el tránsito peatonal, el descanso, el medio ambiente y la estética del municipio, valorando el interés público, decida otorgarlas o denegarlas, así como el que establezca las limitaciones o condiciones que puede conllevar su revocación por incumplimiento de las condiciones de la licencia.<br>Por tanto, la autorización deberá solicitarse y obtenerse con carácter previo a la implantación de cualquier elemento en suelo de uso público, estará subordinada al interés público y, en consecuencia, la concesión de la licencia no implicará para su titular, por ningún otro tiempo, derecho o expectativa legítima. |

**Esp. kodea**: 2023HORD0004

**Gaia**: UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA, BIDE PUBLIKOA TERRAZEKIN (MAHAI-AULKIEKIN) ETA BESTE INSTALAZIO BATZUEKIN OKUPATZEA ARAUTUKO DUENA.

| | | |
|---|---|---|
| ***6. Artikulua. Lizentzien ezaugarriak*** | | ***Artículo 6. Características de las autorizaciones*** |
| 1. Lizentzia hori ostalaritza edo merkataritza jardueren titular den pertsona fisiko zein juridikoak eskatu beharko du. | | 1. Estas licencias deberán ser solicitadas por las personas físicas o jurídicas titulares de las actividades hosteleras y comerciales. |
| 2. Dagokion ostalaritzako eta merkataritzako establezimenduaren jarduera-lizentziari lotua izango da lurzorua okupatzeko baimena, nahitaez, eta, ezingo da baimen hori eskualdatu jarduera aldaketarekin. Hau da, establezimenduaren jarduera aldaketa gauzatzen denean, jarduera berriaren titularrak erabilera publikoko espazioa okupatu nahi izanez gero, baimena eskatu beharko du, nahitaez. | | 2. La autorización de ocupación del suelo estará vinculada necesariamente a la licencia de actividad del establecimiento hostelero y comercial correspondiente, sin que pueda transmitirse dicha autorización con el cambio de actividad. Es decir, cuando se produzca el cambio de actividad del establecimiento, si de la nueva actividad desea ocupar el espacio de uso público, deberá solicitar, obligatoriamente, la autorización. |
| Aldiz, jarduera bera mantenduta titulartasun aldaketa gauzatzen denean, okupazioaren lizentzia eskualdatu ahal izango da, bertan ezarritako epera arte. Ondoren, titular berriak, berriro eskatu behar izango du lizentzia, ordenantza honetako irizpideak beteta. | | Por el contrario, cuando se produzca un cambio de titularidad manteniendo la misma actividad, se podrá transmitir la licencia de ocupación hasta el plazo establecido en la misma. Posteriormente, el nuevo o la nueva titular deberá volver a solicitar la licencia cumpliendo los criterios de esta ordenanza. |
| 3. Baimena kalea okupatu aurretik eskatu eta lortu beharko dute merkatari eta ostalariek. | | 3. Las autorizaciones deberán ser solicitadas y obtenidas por las/los comerciantes y hosteleras con carácter previo a la ocupación de la calle. |
| 4. Baimena prekarioan emango da eta interes publikoko arrazoiengatik ezeztatu egin ahal izango da, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe. | | 4. La autorización se otorgará en precario, y podrá ser revocada por razones de interés público sin derecho a indemnización alguna. |
| 5. Baimenaren titularrak beren gain hartuko ditu jardueraren mentura eta arriskuak. | | 5. Las y los titulares de las autorizaciones asumirán el riesgo y ventura del desarrollo de la actividad. |
| 6. Eskaerak, arau orokor modura, aurreko abendu eta urte horretako urtarrila artean egingo dira. Betiere, urtarrilak 31a izango da eskaera udalera zuzentzeko azken eguna. Salbuespen | | 6. Las solicitudes se realizarán, como norma general, entre diciembre anterior y enero del año en curso. En todo caso, la fecha |

| | | |
|---|---|---|
| bakarra, jarduera urteko beste hilabeteren baten hasten denean onartuko da. | | límite para presentar la solicitud al ayuntamiento será el 31 de enero. La única excepción se aceptará cuando se inicie la actividad en cualquier otro mes, posterior a enero. |
| 7. Behin lizentzia jasota, baimen horrek urte hori eta hurrengo hiru urtetarako (1+3) balio aldia izango du, baimendutako ezaugarrietan inolako aldaketarik ez baldin bada, behinik behin. Aldaketarik nahi izanez gero, berriz egin beharko da eskaera abendua eta urtarrila bitartean. | | 7. Una vez concedida la licencia, dicha autorización tendrá validez durante los tres años siguientes al año en curso (1+3), salvo que se produzca alguna modificación en las características autorizadas. En caso de querer hacer algún cambio, se deberá volver a solicitar entre diciembre y enero. |
| 8. Edozein kasutan, behin lurzoru publikoa okupatu ahal izateko baimena eskuratutakoan, bide publikoa okupatzeagatik dagokion tasa ordaindu beharko dute titularrek. Tasa hori kalkulatzeko, beti, lizentzia eskaera beranduago egin bada ere, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arteko epealdia hartuko da oinarritzat. Salbuespenez, jarduera urteko beste garairen batean ireki den kasuetan soilik, lizentzia onartu deneko hilaren lehen eguna hartuko da kontuan hasierako data modura. | | 8. En todo caso, una vez obtenida la autorización para la ocupación del suelo público, sus titulares deberán abonar la tasa que corresponda por la ocupación de la vía pública. Para el cálculo de esta tasa se tomará como base, el período comprendido entre el 1 de enero y el 31 de diciembre, aunque la solicitud de licencia se haya realizado con posterioridad. Sólo en los casos excepcionales en que la actividad se haya abierto en otra época del año, se tomará como fecha inicial la del primer día del mes en que se haya concedido la licencia. |
| 9. Lizentziaren lehen urtea pasata, urteko lehen hilabetean baja eskaerarik egon ez bada, udalak urteko lizentziaren likidazioa pasako dio titularrari. | | 9. Transcurrido el primer año de licencia sin que se haya solicitado la baja en el primer mes del año, el ayuntamiento pasará la liquidación de la licencia anual a la/al titular. |
| Hau da, lizentziak urtero kobratuko dira, baja eskaera egin denean salbu. | | Es decir, las licencias se cobrarán anualmente, salvo que se haya solicitado la baja. |
| 10. Behin lizentzia emanda ere, baimen horrek izaera juridikoa duenez, aldi baterako eten ahal izango da udalak sustatu edo baimendutako jai-giroko jarduerak, kulturakoak, herritarrenak edo kirol arlokoak egiten direnean, betiere, jarduera horiek baimendutako espazioari eragiten badiote. | | 10. Una vez concedida la licencia, por su naturaleza jurídica, podrá suspenderse temporalmente por el ejercicio de actividades festivas, culturales, cívicas o deportivas promovidas o autorizadas por el |

| | | |
|---|---|---|
| Etenaldi hori interesdunari jakinaraziko zaio 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 40. artikuluan eta hurrengoetan adierazten duen moduan, eta, ahal denetan, hilabeteko aurre-abisuarekin.<br><br>Horrez gain, baimenak eten ahal izango dira obra publikoak edo enpresa zerbitzu-hornitzaileek edo partikularrek obra pribatuak egin eta baimena indarrean den bitartean, nahitaez espazio publiko hori erabili behar bada.<br><br>Etenaldi horiek ere, goian aipatutakoak bezala, interesdunei jakinaraziko zaizkie Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidegoaren 39/2015 legeak dioen erara, eta abisu hori emango da obra baimendu bezain laster edo obraren hasiera noiz izango den jakin bezain pronto.<br><br>Etenaldi horiek ez dute kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik sortuko. Baina etenaldi hori bi aste baino luzeagoa bada, udalak ordaindutako tasaren zati proportzionala itzuliko dio lizentziaren titularrari, bi astetik aurrerako epeari dagokiona.<br><br>11. Baimenak jabetza eskubidea gordeta eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira beti. | | Ayuntamiento, siempre que afecten al espacio autorizado.<br><br>Dicha suspensión se notificará al o a la titular, en los términos previstos en los artículos 40 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y, cuando sea posible, con un preaviso de un mes.<br><br>Además, las autorizaciones podrán suspenderse durante la vigencia de la misma, por obras públicas o por obras privadas realizadas por empresas suministradoras de servicios o particulares, cuando la utilización de dicho espacio sea obligatoria.<br><br>Estas suspensiones, al igual que las arriba mencionadas, se notificarán a los y las interesadas en la forma prevista en la Ley 39/2015, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y se emitirán tan pronto se autorice la obra o se conozca la fecha de inicio de la misma.<br><br>Estas suspensiones no darán derecho a indemnización. En el caso de que el periodo de suspensión sea superior a dos semanas, el ayuntamiento devolverá al titular de la licencia la parte proporcional de la tasa abonada correspondiente al plazo que exceda de los semanas de suspensión.<br><br>11. Las autorizaciones se otorgarán salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros. |
| **7. *artikulua. Lizentziaren muga orokorrak***<br>Udalak lizentzia eskaera jaso eta okupazio azalera aztertzerako orduan, kontuan izango du | | ***Artículo 7. Límites generales de la licencia*** |

| | | |
|---|---|---|
| gune horretatik pasatzeko beharrak zenbaterainokoak diren eta terrazak, zein bestelako elementuak, zein tokitan jartzen diren, beti ere, gutxieneko espazio bat libre utzita oinezkoen pasabidea bermatzeko. Horretarako, ondoko arauak errespetatu beharko dira: | | El Ayuntamiento a la hora de analizar la superficie de ocupación, una vez recibida la solicitud de licencia, tendrá en cuenta el grado de necesidad de paso y ubicación de terrazas y otros elementos, dejando un espacio mínimo libre para garantizar el paso de peatones. Para ello deberán respetarse las siguientes normas: |
| 1. Lizentzian lotesleak izango dira: azalera, mahai kopurua eta aulki kopurua. Ezingo dira gailendu. | | 1. En la licencia tendrá carácter vinculante: la superficie, el número de mesas y el número de sillas. No se podrá exceder de lo indicado en la misma. |
| 2. Ez da terrazarik ezta kanpo elementurik ezartzeko baimenik emango, gunearen ezaugarri fisiko bereziak direla-eta, edo oinezkoen joan-etorrien intentsitatea dela-eta, pertsonen segurtasun, mugikortasun eta irisgarritasunerako desegokiak izan daitezkeen tokietan. | | 2. No se autorizará la instalación de terrazas ni elementos exteriores en lugares que, por sus especiales características físicas o por la intensidad de los desplazamientos de las personas viandantes, puedan resultar inapropiados para la seguridad, movilidad o accesibilidad de las personas. |
| Bestalde, interes publikoak hala eskatzen duenean (obra publikoengatik, larrialdiengatik, baimendutako ekitaldiengatik, zerbitzu publikoengatik, etab.), Udalak terraza jartzea debekatu ahal izango du. | | Por otra parte, cuando así lo exija el interés público (por obras públicas, emergencias, eventos autorizados, servicios públicos, ec,.), el Ayuntamiento podrá prohibir la instalación de la terraza. |
| 3. Kasu guztietan, arau orokorrez, 2,00m-koa edo handiagoa izango da, kanpo elementuak jarrita, utziko den oztoporik gabeko oinezkoen pasabidea. | | 3. En todos los casos, por norma general, el paso de las personas viandantes libre de obstáculos con elementos exteriores será igual o superior a 2,00 m. |
| 4. Tarte hori, arau orokor modura, eraikinaren fatxadaren aldean mantenduko da; baina, hori ezinezkoa denean, salbuespenez baimenduko da fatxadaren kontra mahai-aulkiak, kupelak, mahai-aulki altuak edo bankuak jartzea, kasuan kasu, beti ere: | | 4. Dicha separación se mantendrá, como norma general, en el lado de la fachada del edificio, salvo que ello no fuera posible, en cuyo caso se autorizará, excepcionalmente, la instalación de sillas y mesas, barriles, sillas de |

**Esp. kodea:** 2023HORD0004

**Gaia:** UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA, BIDE PUBLIKOA TERRAZEKIN (MAHAI-AULKIEKIN) ETA BESTE INSTALAZIO BATZUEKIN OKUPATZEA ARAUTUKO DUENA.

- ondoren oinezkoentzako 2 m-tako tarte hori bermatzen bada,
- kale osoan zehar dauden gainontzeko establezimenduetako kanpo elementuak ere alde berean egoten badira,
- eta udal teknikariek egoki ikusten baldin badute.

5. Ezingo da terraza edo bestelako kanpo elementurik jarri: larrialdietako irteeren aurrean, ibiak dituzten pasabideen aurrean, zabor-edukiontzien aurrean, aparkaleku erreserbatuen aurrean, autobus geltokien aurrean, aldamioen alboan edo azpian, eta lorategi edo berdeguneetan.

6. Horrez gain, zerbitzu publikoen beharrei erantzuteko, berehala erabili ahal izateko moduan, libre utzi beharko dira beti: ureztatzeko iturri eta ur-hartuneak, estolderia-erregistroak, larrialdiko irteerak, trafikoa kontrolatzeko elementuak, ibiak eta udalaren zein zerbitzu publikoen bestelako edozein instalazio. Gainera, ezingo dira eraikinetarako sarrera-irteerak inola ere oztopatu.

7. Terrazako elementu oro, lizentzian aipatutako azaleraren barruan kokatu beharko da. Eguzkitakoen kasuan, eguzkiaren orientazioaren arabera mugitu ahal izango dira, baldin eta: eguzkitakoaren oinarria lizentzian baimendutako perimetroaren barruan kokatzen bada; haren hegalak 2,20 metroko altuera librea errespetatzen badu; eta espazioko gainerako erabilera publikoak oztopatzen ez baditu.

mesa altas o bancos contra fachada, siempre que:

- se garantice posteriormente el espacio de 2 m para peatones,
- los elementos exteriores de los demás establecimientos situados a lo largo de toda la calle se sitúen también en el mismo lado,
- los técnicos municipales lo estimen oportuno.

5. No se permitirá la instalación de terrazas u otros elementos exteriores: frente a salidas de emergencia, pasos con vados, contenedores de basura, aparcamientos reservados, estaciones de autobuses, junto o bajo andamios y jardines o zonas verdes.

6. Asimismo, y en atención a las necesidades de los servicios públicos, deberán de estar disponibles, en todo momento, en condiciones que permitan su inmediata utilización: fuentes de riego y tomas de agua, registros de alcantarillado, salidas de emergencia, elementos de control de tráfico, vados y cualquier otra instalación municipal o de servicios públicos. Además, en ningún caso se podrán obstaculizar las entradas y salidas a los edificios.

7. Todo elemento de la terraza deberá situarse dentro de la superficie indicada en la licencia. En el caso de las sombrillas podrán moverse según la orientación del sol, siempre y cuando: la base de la sombrilla se sitúe dentro del perímetro autorizado en la licencia; el vuelo de la misma respete la altura de 2,20

| | | |
|---|---|---|
| 8. Dena den, behin baimena jaso eta gero, bizilagunentzat deserosotasun larriak sortzen badira (dela jende pilaketengatik, dela zaratengatik), Udalak emandako lizentzian onartutako azalera gutxitzea, eraldatzea edo mahai-aulki kopurua murriztea erabaki ahal izango du.<br><br>Balizko murrizketak kasuan kasu aztertuko dira eta Udalak saiakera egingo du, establezimendu bat baino gehiagori eragiten dien kasuetan, proportzionaltasunez ebazteko.<br><br>Murrizketak ebazten direnean, Udalak aurrez ordaindutako tasaren zati proportzionala itzuliko dio jardueraren titularrari. | | metros; y no interfiera en el resto de los usos públicos del espacio.<br><br>8. No obstante, si una vez concedida la autorización se produjeran graves incomodidades para los y las vecinas (sea por aglomeraciones de personas, sea por ruidos), el Ayuntamiento podrá solicitar la reducción o transformación de la superficie autorizada, así como la reducción en el número de mesas y sillas en la licencia concedida.<br><br>Las posibles restricciones se estudiarán caso por caso y se intentará, en los casos que afecten a más de un establecimiento, resolverlas con proporcionalidad.<br><br>En caso de que se resolvieran dichas reducciones, el Ayuntamiento devolverá al titular de la actividad la parte de la tasa proporcional correspondiente abonada anteriormente por el mismo. |
| **III.KAPITULUA. INSTALAZIOEN ETA ELEMENTUEN BALDINTZAK**<br><br>***8. artikulua. Irisgarritasuna***<br><br>1. Instalazioak beti bermatu beharko du oinezkoentzako inongo oztoporik gabeko pasabidea. Lurzoruari zein altuerari dagokienez, edozein pertsona pasatzeko, gurutzatzeko, biratzeko edo norabidea aldatzeko aukera bermatuko da, edozein direla ere pertsona horien ezaugarriak edo batetik bestera joateko moduak.<br><br>2. Orokorrean, irisgarritasun araudiak jasotako 2 metroko oinezkoen ibilbide librea bermatu beharko da edozein eremutan (kale, | | **CAPÍTULO III. CONDICIONES DE LAS INSTALACIONES**<br><br>***Artículo 8. Accesibilidad***<br><br>1. La instalación deberá garantizar en todo momento un paso libre de obstáculos para peatones. Tanto en suelo como en altura, se garantizará el paso, cruce, giro o cambio de dirección de cualquier persona, independientemente de sus características o de los medios de desplazamiento.<br><br>2. Con carácter general, se deberá garantizar el itinerario libre peatonal de 2 metros recogido por la normativa de |

| | | |
|---|---|---|
| espaloi, arkupe...), eta ezingo dira altzariak fatxadaren kontra egon, kasu guztietan; salbu Alde Zaharrean edo, arauz, oinezkoen ibilbide irisgarria eraikinen fatxadaren alboan garatzen ez denetan (oinezkoen lehentasunezko plataforma bakarrean esateko).<br><br>Aipatutako bi salbuespenetan instalazioak fatxaden kontra jarri ahalko dira, baldin eta 7.4 artikuluan aipatutako baldintzak betetzen badira.<br><br>Dena den, Udalak zabalera are handiagoa eskatu ahal izango du oinezkoen joan-etorriak intentsitate handikoak diren kasuetan. | | accesibilidad, en cualquier zona (calle, acera, pórtico...), y no se podrá apoyar el mobiliario a la fachada en ningún caso, salvo en el Casco Histórico o, reglamentariamente, en aquellos casos en los que el itinerario peatonal accesible no se desarrolle junto a la fachada de los edificios (por ejemplo, en una única plataforma peatonal preferente).<br><br>En las dos excepciones mencionadas, las instalaciones podrán apoyarse a las fachadas, siempre que se cumplan las condiciones señaladas en el artículo 7.4 de esta ordenanza.<br><br>No obstante, el Ayuntamiento podrá exigir una anchura aún mayor cuando los desplazamientos peatonales sean de gran intensidad. |
| ***9. artikulua. Terrazetako elementuak***<br><br>1. Zoru publikoan (edo erabilera publikoko espazio pribatuetan) jarri ahal izango diren terrazetan ondorengo elementuak ahalbidetuko dira:<br>• Mahai-aulkiak.<br>• Eguzkitakoak (mahai-aulki modulu bat estaltzeko tamaina duen aterki formako instalazio osagarria, euskarri batekin bere burua eusten duena).<br>• Eguzkitako handiak (oinarri finko bakarra duen eguzkitakoa, modulu bat baino gehiago estaltzen duena, eta, behin bilduta, zuhaitzak ez diren elementuren bati lotuta batuko dena).<br>• Toldoak (fatxada alboan oinezkoen ibilbidea ez dagoen kasuetan eta hirigintza araubideak ahalbidetzen | | ***Artículo 9. Elementos de terraza***<br><br>1. En las terrazas que podrán ubicarse en suelo público, así como en espacios privados de acceso libre y uso público, se podrán autorizar los siguientes mobiliarios y elementos complementarios:<br>• Mesa con sillas.<br>• Sombrillas (instalación auxiliar en forma de paraguas de tamaño para cubrir un módulo de silla de mesa que se sujeta con un soporte).<br>• Sombrillas grandes (sombrilla con una única base fija, que cubre más de un módulo, y una vez recogida se anudara a algún elemento que no sean árboles).<br>• Toldos (cubierta de tela o lona fijada a la fachada que se podrá instalar en los casos en que no exista tránsito peatonal junto a la fachada y la normativa urbanística lo permita). |

| | | |
|---|---|---|
| duenean, fatxadari jositako oihal edo olanazko estalkia).<br>• Albo-babesak (terraza esparrua lizentziak baimendutako aldeetatik mugatzeko balio duen elementua).<br>• Plataforma edo oholtzak.<br>• Informazio panelak.<br>• Apaingarriak eta lorontziak. | | • Protecciones laterales (recinto de terraza, elemento que sirve para delimitar el recinto de la terraza por los lados permitidos en la licencia).<br>• Plataformas.<br>• Paneles informativos.<br>• Adornos y macetas. |
| 2. Eskatutako zabalera ozta-ozta betetzen den kale eta espaloietan, establezimenduaren aurrean upelak (gehienez ere metro beteko diametrodunak), bankuak eta mahai altuak jartzea baimendu ahal izango da, fatxadaren kontra, eta, beti ere, oinezkoentzako ibilbide egokiak (gutxienez 2 metro elementuen ostean eta zuzenak ahalbideratuta. | | 2. En calles y aceras en las que apenas se cumpla la anchura exigida, se podrá permitir la colocación de barriles (de diámetro máximo de 1 m), bancos y mesas altas delante del establecimiento, contra fachada, posibilitando siempre itinerarios peatonales adecuados (mínimo 2 m. tras los elementos) y rectos. |
| 3. Terraza osatzen duten elementuek 2.20 m-tako altuera librea utzi beharko dute. | | 3. Los elementos que componen la terraza deberán permitir una altura libre de 2.20 metros. |
| 4. Eguzkitakoek, irekita, lizentzian onartutako azalera gailendu ahal izango dute, beti ere: eguzkitakoaren oinarria lizentzian baimendutako perimetroaren barruan kokatzen bada; haren hegalak 2,20 metroko altuera librea errespetatzen badu; eta espazioko gainerako erabilera publikoak oztopatzen ez baditu. | | 4. Las sombrillas, abiertas, no podrán superar el perímetro de la terraza. podrán superar el perímetro autorizado en la licencia, siempre y cuando: la base de la sombrilla se sitúe dentro del perímetro autorizado en la licencia; el vuelo de la misma respete la altura libre de 2,20 metros; y no interfiera en el resto de usos públicos del espacio. |
| 5. Terrazen mugetan albo-babesak jarri ahal izango dira (upel eta mahai altuekin osatutakoetan izan ezik), honako baldintzak kontuan izanda:<br>• Oinezkoen ibilbidea eta trafikoarena maila desberdinetan gertatzen den kasuetan (edota terraza egitura finkodun estalki batekin babestuta dagoenean), **albo-babes finkoak jarri beharko dira**. | | 5. Se podrán colocar protecciones laterales en los límites de las terrazas (excepto las compuestas por barriles y mesas altas), teniendo en cuenta las siguientes condiciones:<br>• En aquellos casos en los que el itinerario peatonal y el del tráfico se produzca a diferentes niveles (o cuando la terraza esté protegida por una cubierta con estructura fija), **se deberán colocar protecciones laterales fijas**. |

| | | |
|---|---|---|
| • **Josi gabeko albo-babesak jarri beharko dira**: terrazak errepidea edo aparkatzeko lerroak baldin baditu alboan, bidegorriarekin muga egiten badu, edo elkarren alboan dauden bi terraza banatzeko (kasu horretan bien adostasunarekin). Egunero jaso beharko dira eta inguruneko baldintzetara egokitutakoak izan beharko dute.<br>• **Ez da albo babesik jarri beharko**, terraza hiri-altzarien artean badago eta elementu horiek alboetako babesen funtzioa ondo betetzen badute (lorontziak adibidez).<br>• **Gainerako kasuetan, sustatzaileak eskatuta jarri ahalko dira albo-babesak**, beti ere espazio publikoaren erabilera kaltetzen ez badute. | | • **Deberán colocarse protecciones laterales sin fijar**: si la terraza esta junto a la carretera o tiene líneas de estacionamiento, linda con el carril bici, o para separar dos terrazas contiguas (en este caso con el consentimiento de ambos). Deberán recogerse diariamente y ajustarse a las condiciones del entorno.<br>• Si la terraza se encuentra entre mobiliario urbano y estos elementos cumplen bien la función de protección lateral, como las jardineras, **no será necesario colocar protección lateral.**<br>• En el resto de los casos, las protecciones laterales **podrán instalarse a petición del promotor,** siempre que no perjudiquen el uso del espacio público. |
| 6. Terrazetan argiztapen instalazioak onartuko dira, beti ere instalazio autonomoak baldin badira (ez sareari lotuak). Instalazio hori soilik martxan egon ahal izango da terrazarako baimendutako ordutegiaren barruan. | | 6. Se admitirán instalaciones de iluminación en terrazas, siempre que sean instalaciones autónomas (no conectadas a la red). Esta instalación sólo podrá estar en funcionamiento dentro del horario permitido para la terraza. |
| ***10.artikulua. Zein elementu ez den onartuko*** | | ***Artículo 10. Elementos no admitidos*** |
| 1. Terrazei, establezimendu barrutik emango zaie zerbitzua eta ez dira onartuko: kioskoak, barrak, janaria prestatzeko instalazioak, terrazarako lagungarri gisa erabil daitezkeen bestelako altzariak, izozki, litxarrari, jolas, opari edo bestelako produktuak saltzen dituzten makinak eta antzerakoak.<br>2. Era berean, terrazetan ez da onartuko soinua egiten duen gailurik, hala nola: musika- | | 1. Las terrazas serán servidas desde el interior del establecimiento y no serán admisibles: quioscos, barras, instalaciones para cocinar, otros muebles que puedan servir de apoyo a la terraza y máquinas expendedoras de helados, golosinas, juegos, regalos u otros productos similares.<br>2. Tampoco se admitirán dispositivos sonoros en terrazas como equipos de música, |

| | | |
|---|---|---|
| ekipoak, bozgorailuak, telebistak, ordenagailuak, karaokeak, pantailak eta abar.<br><br>3. Terrazetan ezingo da, inola ere airerik girotu; ez berotzeko, ez hozteko, ezta hezetzeko ere. | | altavoces, televisores, ordenadores, karaokes, pantallas, etc.<br><br>3. En ningún caso se podrá climatizar aire en las terrazas; ni para calentar, ni para enfriar, ni para humedecer. |
| ***11. artikulua. Terrazen baldintza edo mugak***<br><br>1. Arau orokor modura, edozein espaziotan terraza jarri ahal izateko, arestian aipatutako gutxieneko 2m-tako ibilbide librea utzi beharko da oinezkoentzako.<br><br>2. Aldi berean, oinezkoek eta ibilgailuek, plataforma berean, kalea partekatzen dutenetan, edo oinezkoez gain, ordutegi konkretu baten barruan ibilgailuak pasa daitezkeenean (Alde Zaharrean adibidez, non TAOko ordenantzaren 3. artikuluan zehazten diren ordutegiak), 3.50 metrotako tartea utzi beharko da oinezko eta ibilgailuentzako. Kalearen zabalera dela eta, distantzia horiek bermatzea ezinezkoa denean, terraza eta mahai-aulkiak ezingo dira jarri ibilgailuen zirkulazioa baimenduta dagoen tarte horietan.<br><br>3. Plaza, arkupe eta gune irekien kasuan, berriz, fatxada alboko 2 metroko ibilbide libre minimoa 4 metrokoa izan dadila hobetsiko da.<br><br>Horrez gain, plaza eta espazio libre orok %50eko azalera librea mantenduko du gutxienez, hara ematen duten terraza guztiak kontuan izanda. Horretarako, okupatu ahal izango den espazioaren banaketa aztertuko du Udalak, eskaera egin dezaketen establezimendu guztiak eta plaza bakoitzaren izaera ere kontuan hartuta.<br><br>4. Terrazak ibilgailuen zirkulazio duten kaleetako espaloietan kokatzen direnean, ostera, | | ***Artículo 11. Condiciones o limitaciones de las terrazas***<br><br>1. Como norma general, para poder instalar una terraza en cualquier espacio, se deberá de garantizar el paso libre peatonal mínimo de 2 metros mencionado anteriormente.<br>2. Al mismo tiempo, cuando peatones y vehículos compartan la calle en una misma plataforma, o cuando, además de las personas viandantes, puedan pasar vehículos dentro de un horario concreto, como es el caso del Casco Histórico (en el que los horarios se especifican en el artículo 3 de la Ordenanza de la OTA), se deberá dejar una separación peatonal y rodada de 3.50 metros. Cuando la anchura de la calle no permita garantizar dichas distancias, las terrazas y mesas y sillas no podrán ubicarse en los tramos en los que esté permitida la circulación de vehículos.<br>3. En el caso de plazas, pórticos y espacios abiertos, se priorizará que el espacio mínimo lateral de 2 metros de la fachada sea de 4 metros.<br>Además, toda plaza y espacio libre mantendrá una superficie libre de, al menos, el 50%, teniendo en cuenta todas las terrazas que dan acceso a ella. A tal efecto, el Ayuntamiento analizará la distribución del espacio susceptible de ocupación, teniendo en cuenta todos los establecimientos susceptibles de solicitud y la naturaleza de cada plaza.<br>4. Cuando las terrazas se ubiquen en las aceras de las calles destinadas a la circulación |

| | | |
|---|---|---|
| terrazatik galtzadarako 60 cm-ko distantzia minimoa utzi beharko dute, ibilgailuak lerroan aparkatzen duten kasuan; 30 cm-koa, aldiz, ibilgailuak baterian aparkatzen dutenean. | | de vehículos, éstas deberán dejar una distancia mínima de 60 cm de la terraza a la calzada cuando los vehículos se estacionen en línea, y de 30 cm, cuando se estacionen en batería. |
| 5. Terrazak galtzadako aparkalekuak hartuta kokatu ahal izango dira hurrengo bi kasuetan:<br>• Espaloietan terraza jartzeko zabalera minimorik ez dagoenean.<br>• Terraza jartzeko bestelako eragozpen finkoren bat dagoenean. | | 5. Las terrazas podrán situarse ocupando aparcamientos en la calzada en los dos siguientes casos:<br>• Cuando no exista anchura mínima para la colocación de la terraza en las aceras.<br>• Cuando haya cualquier impedimento fijo para la instalación de la terraza. |
| Eta kasu horietan soilik, terraza galtzadan jarri ahal izango da, beti ere, udal teknikariek zirkulazioari zein aparkamenduei sortzen dien eragina aztertu eta aldeko txostena ematen badute. | | Y sólo en estos casos, se podrá instalar la terraza en la calzada, siempre que las y los técnicos municipales estudien la afección al tráfico y a los aparcamientos, y emitan un informe favorable. |
| Galtzadan kokatzen diren terrazen luzera, bi neurri hauen artean luzeena izango da: establezimenduaren fatxadarena edo bi aparkalekuena lerroan (4 baterian). | | La longitud de las terrazas situadas en la calzada será la más larga de entre estas dos medidas: la de la fachada del establecimiento o la de dos aparcamientos en línea (4 en batería). |
| Terraza horien kokapenak aparkaleku erreserbaturik edo zamalanetako gunerik lekualdatzea eskatuko balu, horretarako baimena lortzea eta egikaritzearen kostua eskatzailearen kontu izango da. Lekualdaketa egin beharko da udal teknikarien aldeko txostenaren ondoren, bermatuta gera dadin kokapen berrian espazio horien erabilgarritasuna. | | En el caso de que la ubicación de dichas terrazas requiriera el traslado de aparcamientos reservados o zonas de carga y descarga, la obtención de la autorización correspondiente y el coste de su ejecución correrá a cargo del solicitante. Para el traslado se necesitará el informe técnico municipal previo favorable, para poder garantizar la plena utilidad de estos espacios en la nueva ubicación. |
| | | La terraza deberá estar al mismo nivel que la acera y, en su caso, habrá que construir una plataforma para garantizar su dimensión. |

| | | |
|---|---|---|
| Terrazak, espaloiaren maila berean egon beharko du, eta, hala dagokionean, plataforma eraiki beharko da neurria bermatzeko. | | Esta plataforma dejará libres 30 cm laterales para con los aparcamientos en línea y 60 cm laterales para con los aparcamientos en batería. |
| Plataforma horrek libre utziko ditu: alboetan 30 cm lerroko aparkalekuekiko; eta 60 cm bateriako aparkalekuekiko. | | |
| Terrazaren perimetroan babes-elementu finkoak jarri beharko dira. | | Se deberán colocar elementos fijos de protección en el perímetro de la terraza. |
| Oholtza gaineko terrazarako sarrera espaloitik egin beharko da derrigorrez. | | El acceso a la terraza ubicada sobre la tarima deberá realizarse obligatoriamente por la acera. |
| Dena dela, Udalaren titulartasunekoa ez den kale zein bideetan, ezingo da horrelako terrazarik jarri | | En cualquier caso, en calles que no sean de titularidad municipal no se permitirá la instalación de este tipo de terrazas. |
| Egitura egonkorreko estalkiak ezingo dira okupatutako aparkalekuko zorura ainguratu. | | Las cubiertas de estructura fijas no podrán anclarse al suelo del aparcamiento ocupado. |
| Oholtzak ura husteko sistema edukiko du eta sistema horrek ezin izango du oztopatu urbanizazioak terraza jarri aurretik zeukan ura jasotzeko sistema. Horrez gain, urbanizazioaren estolda-zuloak eta kutxatilak, beti, errejistratzeko moduan geratu beharko dira. | | La tarima dispondrá de un sistema de desagüe que no interfiera con el sistema de recogida de agua de la urbanización previo a la instalación de la terraza. Además, los sumideros y arquetas de la urbanización deberán quedar siempre disponibles para su registro. |
| Kirol, kultura edo bestelako jarduerak direla eta, mahai eta aulkiak kentzeko agintzen bada, plataforma edo oholtza ere kendu egin beharko da, behar den denborarako, eta hori guztia kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe. | | Cuando por razones deportivas, culturales o de otra índole se ordene la retirada de mesas y sillas, se deberá retirar también la plataforma o tarima por el tiempo necesario, y todo ello, sin derecho a indemnización alguna. |
| Oholtza bera eta azpiko zoladura garbi mantenduko dira denbora guztian, eta lizentziaren titularrari dagokio garbiketa horren ardura. | | La tarima y el pavimento inferior se mantendrán limpios en todo momento, correspondiendo la responsabilidad de dicha limpieza al titular de la licencia. |
| | | 6. Con carácter general, la longitud de las terrazas, incluida la protección lateral aprobada por el Ayuntamiento, no podrá exceder de la longitud de la fachada del establecimiento. |

| | |
|---|---|
| 6. Orokorrean, terrazen luzerak, Udalak onartutako alboko babesak barne, ezingo du establezimenduaren fatxadaren luzera baino handiagoa izan.<br><br>Salbuespen modura, alboko lokalaren aurrean terraza luzatzea onartu ahal izango da, gehienez norbere establezimenduaren fatxadak neurtzen duen luzera % 50 handituz, jatorrizko terrazaren zabalera berberarekin. Horretarako bi baldintza bete beharko dira: erabilera publikoaren aldetik espazio horrek duen jatorrizko funtzioa bermatzea eta lokal horien jabeek, berariaz, idatzizko baimena eman eta Udalak onartzea. | Excepcionalmente se podrá permitir la prolongación de la terraza frente al local colindante, incrementando en un 50% la longitud de la fachada del propio establecimiento y respetando siempre la anchura de la terraza original. Para ello se tendrán que cumplir dos condiciones: que desde el punto de vista del uso público se garantice el funcionamiento original del establecimiento colindante y, que la propietaria o el propietario de la misma preste por escrito su consentimiento expreso, que tendrá que ser aceptado por el Ayuntamiento. |
| Halere, terrazek kaleetan ezingo dute inoiz 60m$^2$-tako azalera baino gehiago hartu. Dena den, azalera hori handitu ahal izango da plazetan, horien azalera erabilgarriaren erdia behintzat libre geratzen denean eta espazio horretako ohiko erabilerak oztopatzen ez direnean. Kasu horietan, gehienez 90m$^2$-takoa izango da hartutako azalera. | No obstante, en ningún caso las terrazas podrán ocupar una superficie superior a 60m$^2$ en la calle. De todas formas, dicha superficie podrá incrementarse en caso de ubicarse en plazas, siempre y cuando queden libre al menos la mitad de su superficie útil y no se obstaculicen los usos habituales en dicho espacio. En estos casos, la superficie ocupada máxima será de 90m$^2$. |
| Kasu guztietan mahai eta aulki kopurua lizentzian ezarritako gehienekoa izango da. | En todos los casos, el número de mesas y sillas será el máximo establecido en la licencia. |
| 7. Gertatu ahal izango da instalazioaren okupazioa mugatu eta lokalaren fatxadaren aurrealdea baino neurri txikiagoa baimentzea, fatxada horretatik gertu atarteak, larrialdi irteerak edo antzerakoak daudenean. | 7. Podrá autorizarse una ocupación limitada de la instalación y una dimensión inferior a la fachada del local, cuando existan portales, salidas de emergencia o similares próximos a dicha fachada. |
| 8. Terraza osoaren kokapena establezimenduaren ikuspen angelu barruan | 8. La ubicación de toda la terraza estará dentro del ángulo de visibilidad del establecimiento, a una distancia máxima de 30 m desde la puerta. La única excepción será el caso en el que se opte por otra ubicación por garantizar las medidas de seguridad.<br>9. En el caso de que dos establecimientos hosteleros, situados el uno frente al otro, |

**Esp. kodea:** 2023HORD0004

**Gaia:** UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA, BIDE PUBLIKOA TERRAZEKIN (MAHAI-AULKIEKIN) ETA BESTE INSTALAZIO BATZUEKIN OKUPATZEA ARAUTUKO DUENA.

egongo da, gehienez ere atetik 30 m-tako distantzian. Salbuespen bakarra izango da segurtasun neurriak bermatzeagatik beste kokapen bat hobesten den kasua.

9. Bata bestearen parean dauden ostalaritzako bi establezimenduk terraza jartzeko baimena eskatzen badute, Udaleko Zerbitzu Teknikoek egoera aztertu eta erabakiko dute espazio hori nola banatu, neurri eta arauak aintzat hartuta.

10. Elkarren alboz alboko establezimenduetan terrazak ezartzerakoan, lerrokatuta ezarri beharko dira, goian aipatu bezala, oinezkoen joan-etorri zuzenak bermatzeko; gainera, bi terraza elkarren alboan daudenean, bien tartean, orokorrean, 1.5 m-tik gorako distantzia utzi beharko da. Horrez gain, mugikortasuna oztopatzen ez dela ziurtatu beharko dute titularrek.

11. Instalazioek uneoro lehenetsi beharko dituzte oinezkoen eta bizilagunen eskubideak. Hala, libre utzi beharko dira beti bestelako saltoki edo establezimendu zein atarietarako sarbideak, bai luzera, baita zabaleran ere.

12. Terrazetan ez da zoladurarik onartuko. Salbuespen bakarra, terrazen kokapena ibilgailuentzako aparkalekuen eremuetan baimentzen deneko kasua izango da. Horietan plataforma eraiki beharko da, oinezko ibilbidearen maila bera eduki beharko duena.

13. Ezingo dira altzariak ere zorura josi, salbu terraza galtzadan kokatzen denean, ibilgailuentzako aparkalekuetako eremuetan.

soliciten la instalación de una terraza, los Servicios Técnicos Municipales estudiarán y decidirán la distribución del espacio en función de las dimensiones y la normativa.

10. La instalación de terrazas de los establecimientos contiguos entre sí, tal como se ha indicado anteriormente, deberá realizarse de forma alineada para garantizar los desplazamientos directos de los peatones; además, cuando dos terrazas estén contiguas, entre ambas, de carácter general, deberá establecerse una distancia superior a 1.5 m. Además, las y los titulares deberán asegurarse de que no se obstaculiza la movilidad.

11. Las instalaciones deberán priorizar en todo momento los derechos de las personas viandantes, así como los de las vecinas y vecinos. Por ello, se deberán dejar siempre libres los accesos a otros puntos de venta, establecimientos o portales, tanto en longitud como en ancho.

12. No se admitirá la pavimentación en las terrazas. La única excepción será en el caso de que la ubicación de las terrazas se autorice en las zonas de aparcamiento de vehículos. En ellos, se deberá construir una plataforma que deberá estar al mismo nivel que el recorrido peatonal.

13. El mobiliario no se podrá fijar al suelo, salvo cuando la terraza se ubique en la calzada, en las zonas de aparcamiento de vehículos.

14. Cuando la autorización de terraza haya caducado y no se haya renovado, o haya que desmontar la terraza por cualquier otro motivo, el suelo deberá permanecer en el mismo estado en el que se encontraba originariamente.

Una vez retirada la terraza, si se observa que el suelo ha sufrido algún daño por la instalación, el o la promotor/a deberá proceder

| **Kodea** | AG25/08998 | **Udala** | Arrasate/Mondragón |
|---|---|---|---|
| **CUDO** | 000.0055.AAA1DX09.N.noxo | | |
| **URL** | https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DX09N.noxo | | |

Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.

| | | |
|---|---|---|
| 14. Terrazako baimena iraungi eta berriztu ez denean, edo bestelako arrazoiren batengatik terraza desmuntatu behar denean, zorua hasiera batean zegoen egoera berean utzi beharko da. | | inmediatamente a su reparación, devolviendo el suelo a su estado original. |
| Terraza kendutakoan, zoruak instalazioarengatik kalteren bat jasan duela ikusten bada, sustatzaileak, bere kontu, berehala konpondu beharko du, jatorrizko egoerara itzuliz. | | |
| 15. Terrazen erabilerak ezingo du oztopatu hiri-altzarien erabilera arrunta. | | 15. El uso de terrazas no podrá obstaculizar el uso ordinario del mobiliario urbano. |
| Hala, adibidez, eserlekuen alboetan 1,50 metroko diametrodun gunea egon beharko da libre beti albo batetan behintzat. Iturrien inguruetan ere horiek erabiltzeko aukera bermatzen duen 1,50 metroko diametrodun espazio librea bermatu beharko da. | | Así, por ejemplo, en los laterales de los asientos deberá existir siempre una zona libre de 1,50 metros de diámetro, al menos en un lateral. Deberá garantizarse un espacio libre de 1,50 metros de diámetro que garantice su uso en las proximidades de las fuentes. |
| 16. Terrazen mugak grafikoki ezarriko dira lizentzian bertan. Bestalde, Udalak, baimendutako azalera identifikatzeko, markak jarriko ditu lurrean. Azalera horretatik kanpo ezingo da inolako okupaziorik gauzatu. | | 16. Los límites de las terrazas se establecerán gráficamente en la propia licencia. Por otra parte, el Ayuntamiento, a efectos de identificar la superficie autorizada, colocará marcas en el terreno. Fuera de esta superficie no se podrá realizar ocupación alguna. |
| 17. Terrazaren azalera eta berau osatzen duten elementuen kokapena Udalak egokituko du kale eta esparru bakoitzaren ezaugarrietara. | | 17. La superficie de la terraza y la ubicación de los elementos que la componen será adaptada por el Ayuntamiento a las características de cada calle. |
| 18. Ordutegia guztiz amaituta, eta salbuespen zehatzak salbuespen, altzariak bide publikotik kendu egin beharko dira eta espazio pribatu egokian gorde. Ezingo dira | | 18. Una vez finalizado el horario, y salvo excepciones concretas, el mobiliario deberá ser retirado de la vía pública y almacenado en un espacio privado adecuado. No se podrán dejar los elementos de la terraza en el exterior del establecimiento. Si bien, una vez finalizado el horario de terrazas todavía el establecimiento mantiene el horario de apertura según licencia, los elementos de terrazas podrán ser acopiados en el propio ámbito exterior de terraza. Para dicho acopio se dispondrá de 30 minutos desde la hora de cierre de terrazas. Una vez cerrado el bar, todos los elementos deberán de ser recogidos en su interior. |

| | | |
|---|---|---|
| establezimenduaren kanpo aldean terrazako elementuak utzi. Hala ere, terraza ordutegia bukatuta establezimenduak irekita egoteko ordutegia badu kanpo elementuak eremuan bertan batuta eta pilatuta usteko aukera egongo da. Pilaketa hori egiteko, terraza itxiera ordutik 30 minutuko tartea egongo da. Baina, behin taberna itxita elementu guztiak barruan jaso beharko dira. | | |
| Establezimenduan terrazako elementuak gordetzeko lekurik ez dagoelako beste lokalen batean gorde behar izanez gero, Udalari jakinarazi beharko zaio non gordeko diren. Lokal horrek beharrezko baldintza guztiak bete beharko ditu. | | Si por falta de espacio en el establecimiento para guardar los elementos de la terraza fuera necesario guardarlos en otro local, deberá comunicarse al Ayuntamiento el lugar donde se depositarán, debiendo el establecimiento reunir todas las condiciones necesarias. |
| Salbuespen bakarrak honakoak izango dira: babes perimetral finkoak, lorontziak, eguzkitako handiak eta horien euskarriak. Azken horiek bilduta eta zuhaitzak ez diren elementuren bati lotuta utzi beharko dira. | | Las únicas excepciones serán: las protecciones perimetrales fijas, las jardineras, las sombrillas grandes y sus soportes. En estos casos deberán quedar envueltos y sujetos a elementos que no sean árboles. |
| 19. Terrazen azaleraren garbiketa eta mantenua baimenaren titularren ardura izango da; eta lan horietan udalak gabeziak ikusten baditu, baimena kendu ahal izango dio titularrari. | | 19. La limpieza y mantenimiento de la superficie de las terrazas correrá a cargo de las y los titulares de la autorización; y cuando el Ayuntamiento aprecie deficiencias en la ejecución de las mismas, podrá retirar la licencia. |
| 20. Terrazetan eman daitekeen erabilera bakarra da janariak eta edariak zerbitzatzea. Bestelako jarduerak debekatuta daude. Salbuespen gisa, udalak baimen bereziak eman ahal izango ditu ospakizun berezietarako (formatu txikiko kontzertuak adibidez), behin eskaera jaso eta aztertu ondoren. Horretarako 3 aste lehenago, gutxienez, eskatu beharko dio sustatzaileak udalari baimena. | | 20. En las terrazas, el único uso aceptado es el servicio de comidas y bebidas. Se prohíben el resto de actividades. Excepcionalmente, una vez recibida y analizada la solicitud, el Ayuntamiento podrá conceder autorizaciones especiales para celebraciones especiales, como conciertos de pequeño formato. Para ello, el promotor o la promotora deberá presentar su solicitud al ayuntamiento con una antelación mínima de 3 semanas. |
| | | Por razones de descanso ciudadano o razones de protección de interés general, el Ayuntamiento podrá establecer condiciones especiales para cada uno de estos conciertos de pequeño formato. Estas condiciones se determinarán en la licencia. |

| | | |
|---|---|---|
| Herritarren atsedenerako kausak medio, edo interes orokorra babesteko bestelako arrazoiak tarteko, udalak baldintza bereziak jarri ahal izango dizkio formatu txikiko kontzertu horietako bakoitzari. Baldintza horiek lizentzian zehaztuko dira. | | |
| ***12.artikulua. Altzarien ezaugarriak***<br><br>1. Eskaera guztietan, izan berrietan izan berritzeko eskaeretan, instalatuko diren altzarien ezaugarriak adierazi beharko dira, baita erabili nahi den altzari motaren eta elementu guztien argazki bat erantsita.<br><br>2. Instalatu nahi diren mahai eta aulkiak pilagarriak, material gogorrekoak, erraz garbitzekoak eta kalitate onekoak izan beharko dira.<br><br>3. Altzariek diseinu eta tratamendu kromatiko bateratua izan beharko dute, inguru horretan egokiak diren koloreekin. Kolore neutroak lehenetsiko dira (txuria, krema, grisa, beltza), eta mahai-aulkien materialetarako aluminioa zein egurra.<br><br>4. Mahai-aulkien hanken azpian eta altzarien euskarrietan gomak jarri beharko dira, hauek mugitzeko orduan zarata gutxitzeko helburuarekin, bizilagunei ahalik eta traba gutxien eragiteko.<br>5. Albo-babesen kasuan, honako ezaugarriak izango dituzte: | | ***Artículo 12. Características del mobiliario***<br><br>1. En todas las solicitudes, ya sean nuevas, ya sean de renovación, se deberán de indicar las características del mobiliario que se quieren instalar, adjuntando una fotografía del tipo de mobiliario y de todos los elementos a utilizar.<br>2. Las mesas y sillas que se pretendan instalar deberán de ser apilables, de material duro, de fácil limpieza y de buena calidad.<br><br>3. El mobiliario deberá tener un diseño y tratamiento cromático unificado, con colores adecuados al entorno. Se priorizarán los colores neutros (blanco, crema, gris, negro) y el aluminio y la madera para los materiales de las mesas y sillas.<br><br>4. Se deberán colocar gomas bajo las patas de las sillas y mesas y en los soportes del mobiliario, para reducir el ruido a la hora de moverlos, con el fin de minimizar las molestias a las personas residentes.<br><br>5. En el caso de las protecciones laterales, tendrán las siguientes características: |

**Esp. kodea:** 2023HORD0004

**Gaia:** UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA, BIDE PUBLIKOA TERRAZEKIN (MAHAI-AULKIEKIN) ETA BESTE INSTALAZIO BATZUEKIN OKUPATZEA ARAUTUKO DUENA.

- Lorontziek oinarri sendoak izango dituzte egonkortasuna bermatzeko, eta landareak edukiko dituzte.
- Maneiatzerakoan zaratarik ez ateratzeko elementuak edukiko dituzte.
- Ezingo dira zorura ainguratu eta kontrapisua izan beharko dute (finkoetan ezik).
- Elementu guztiak baimendutako azaleraren barruan egon beharko dira, eragozpenik sortu gabe eremuaren kanpoaldera, eta egunero kendu beharko dira.
- Samur desmuntatzekoak izango dira eta, gainerako altzariak bezala, egunero kendu beharko dira.

6. Debekatuta dago terraza osatzen duen inongo altzari eta instalazioetan, ezta elementu osagarrietan ere, publizitatea edo iragarkiak jartzea, establezimenduaren izen edo anagrama ez bada. Kasu horietan, izena edo anagrama terraza osatzen duten altzari eta elementu osagarrietan jarri ahal izango dira, gehienez jota ondorengo neurriekin:

- Eguzki-oihaletan gehienez 60 x 20 cm alde edo hegal bakoitzeko.
- Eguzkitako hegaletan, aulki, mahai eta hegaletan, gehienez 20 x 10 cm.

7. Eguzkitakoei dagokienez, bistak garbi mantendu eta herriaren ikuspegia ez ezkutatzeko, debekatuta daude instalazioa ixten duten alboetako itxierak; hau da, diseinu irekia

- En caso de las macetas, tendrán una base sólida para garantizar la estabilidad, y plantas en su interior.
- Dispondrán de elementos para evitar el ruido durante su manejo.
- No se podrán anclar al suelo y deberán tener contrapeso (excepto en el caso de los fijos)
- Todos los elementos deberán estar dentro de la superficie autorizada, sin obstaculizar el exterior de dicha área, y serán retirados diariamente.
- Serán de fácil desmontaje y se retirarán todos los días junto a los elementos de la terraza.

6. Se prohíbe la publicidad o anuncio de cualquier mobiliario e instalaciones que formen parte de la terraza, así como de sus elementos complementarios, salvo que se trate del nombre o anagrama del establecimiento. En estos casos, el nombre o anagrama se podrá colocar en el mobiliario y elementos auxiliares que formen parte de la terraza, con las siguientes dimensiones máximas:

- En toldos hasta 60 x 20 cm por lado o ala.
- En sombrillas, en sillas, mesas y aleros, máximo 20 x 10 cm.

7. En cuanto a las sombrillas, para poder mantener la vista despejada y no ocultar la visibilidad del pueblo, se prohíben los cierres laterales que cierran la instalación; tendrán un

| | | |
|---|---|---|
| izango dute. Salbuetsita dauden bakarrak aparkaleku edo galtzadetako terrazak dira. | | diseño abierto. Únicamente se exceptúan las terrazas de aparcamientos o calzadas. |
| 8. Eguzkitakoen hegal eta eusteko oinak terrazaren azaleraren barruan egongo dira. | | 8. La montura/tela y pies de sujeción de las sombrillas estarán dentro de la superficie de la terraza. |
| 9. Fatxadari lotutako oihal edo olanaz egindako estalki edo toldoen kasuan: hauen okupazioa ere, gehienez baimendutako terraza azaleraren berdina izango da; azalera horren gainean zabaldu eta itzala egiteko zein euritik babesteko; eta jasotzeko sistema bat izango du. | | 9. En el caso de cubiertas o toldos de tela o lona instalados en la fachada: su ocupación será igual a la superficie de terraza máxima autorizada, sobre la que se extenderá para dar sombra o proteger de la lluvia, y dispondrá de un sistema para ser recogido. |
| 10. Toldoen luzera, hortaz, gehienez, establezimenduaren fatxadaren zabalera izango da. Hala izanda ere, bide publikotik inguruko lokal komertzial bat ondo ikustea zailtzen duenean, lokal horren titularraren adostasuna egiaztatu beharko du okupazio baimena eskatu duenak. | | 10. La longitud de los toldos, por lo tanto, será como máximo la anchura de la fachada del establecimiento. No obstante, cuando dificulte la visibilidad de un local comercial cercano desde la vía pública, el solicitante de la autorización de ocupación deberá acreditar el consentimiento del titular de este. |
| 11. Estalkien altuerari dagokionez:<br>• gehieneko altuera, pareko eraikineko beheko solairuko sabaiko forjatuaren beheko aldea izango da,<br>• eta terraza edo mahai-ahulki guneek bide publikoa okupatzen dutenean, gutxieneko altuera 2,20 m-koa izango da edozein altueretan. | | 11. En cuanto a la altura de las cubiertas:<br>• la altura máxima será la parte baja del forjado del techo de la planta baja del edificio paralelo,<br>• y cuando el área de terraza o mesa ocupe la vía pública, la altura mínima será de 2,20 metros en cualquier altura. |
| 12. Eguzkitako eta estalkien olana edo oihalaren kolorea, altzarien kasuan bezala, neutroa izango da (txuria, krema, beltza, grisa...). | | 12. El color del toldo o tela de la sombrilla y de las cubiertas, como en el caso del mobiliario, será neutro (blanco, crema, negro, gris...). |

| | | |
|---|---|---|
| 13. Altzariak egunero jaso beharko dira, eguzkitakoak bildu eta lokal barruan gorde, eta toldoak goraino batu. Eguzkitako handien kasuan, establezimendu barruan lekurik ez bada, kanpoaldean, zuhaitzak ez diren egitura finko bati lotuta batu beharko dira. | | 13. Cada día se recogerá el mobiliario, se recogerán las sombrillas y se guardarán en el interior del local y se recogerán los toldos hasta arriba. En el caso de sombrillas grandes, si no hay espacio en el interior del establecimiento, deberán anudarse en el exterior a una estructura fija que no sea árbol. |
| **IV. KAPITULUA. MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUAK**<br><br>***13.Artikulua. Merkataritza-establezimenduentzat baldintzak.***<br><br>1. Merkataritza-establezimenduei bide publikoa okupatzeko baimena eman ahal izango zaie: salmentan dituzten produktuak erakusteko, publizitatea egiteko (arbela eta antzekoekin), apaingarriak kokatzeko edo jarduerari lotutako bestelako okupazio justifikatuak egiteko.<br><br>2. Okupazio horiek egiteko, ezinbestekoa izango da baimena lortzea. Udalak baimena eman aurretik, eskaera bakoitza baloratuko du arreta berezia jarrita bide publikoen funtzionaltasunean eta, bereziki, irisgarritasun araudiak betetzean, honakoa hobetsita: 2 metroko zabalera librea fatxadaren kontra geratzea.<br><br>Hala ere, Udalak ez du baimenik emango pertsonen joan-etorrien intentsitatea handia den lekuetan edo oinezkoen segurtasunagatik, mugikortasunagatik edo irisgarritasunerako arazotsuak izan daitezkeen kasuetan. | | **IV. CAPÍTULO. ESTABLECIMIENTOS COMERCIALES**<br><br>***Artículo 13. Condiciones de los establecimientos comerciales.***<br><br>1. Podrá autorizarse la ocupación de la vía pública a establecimientos comerciales para: la exposición de sus productos en venta, la publicidad (con pizarra y similares), la colocación de elementos decorativos u otras ocupaciones justificadas vinculadas a la actividad.<br>2. Para la realización de estas ocupaciones será requisito indispensable la obtención de la correspondiente autorización. El ayuntamiento, con carácter previo al otorgamiento de la autorización, valorará cada solicitud, con especial atención a la funcionalidad de las vías públicas y, especialmente, al cumplimiento de las normativas de accesibilidad: se procurará que la anchura libre de 2 metros quede contra fachada.<br>No obstante, el Ayuntamiento no autorizará la instalación en aquellos lugares en los que la intensidad de los desplazamientos de las personas sea alta o puedan resultar problemáticos por la seguridad, la movilidad o la accesibilidad de los peatones. |

| | | |
|---|---|---|
| 3. Merkataritza establezimendu-motaren arabera, honakoak izango dira okupazio maximoak:<br><br>• Frutategi eta antzekoetan: establezimenduaren fatxadaren luzera eta gehienez 80 cm-ko zabalera.<br>• Gainerako merkataritza jardueretan: establezimenduaren fatxadaren luzera eta, gehienez, metro bateko zabalera.<br><br>Elementuak fatxadaren lerroan jarri ahal izango dira, beti ere atearen aurrea libre utzita, 90 cm-tan gutxienik. Fatxadaren eta elementu desmuntagarriaren artean, ahal dela, 2,00 m utzi beharko dira. Salbuespenez, eta betiere irisgarritasuna eta mugikortasuna mugatzen ez duten bitartean, fatxadari atxikitakoak baimendu ahal izango dira.<br><br>Baimena eskatzen duten establezimenduek euren fatxadaren fronte osoa okupatu ahalko dute. Gainera, alboko establezimenduaren berariazko baimenarekin, % 50eko luzera gehigarria hartu ahal izango dute, alboko lokalaren parean, zabalera berberarekin.<br><br>4. Ordutegiari dagokionez, bakar-bakarrik, establezimendua irekita dagoen bitartean okupatu ahal izango da zoru publikoa, bere ordutegi komertzialaren barruan, eta 09:00 eta 21:00 bitarteko ordutegian. Ohiko okupazioetatik at merkatariek udalari bideratuko dizkien eskakizun berezietan, ordutegi hori zabaldu ahal izango da, salbuespenez.<br><br>5. Ezin dira produktuak, kaxak edo materialak kalean biltegiratu edo pilatu, ezta | | 3. Según el tipo de establecimiento comercial, las ocupaciones máximas serán las siguientes:<br><br>• En fruterías y similares: longitud de fachada del establecimiento y anchura máxima de 80 cm.<br>• En el resto de las actividades comerciales: longitud de fachada del establecimiento y anchura máxima de un metro.<br><br>Los elementos podrán colocarse en la línea de la fachada, dejando siempre libre el frente de la puerta, con una distancia mínima de 90 cm. La separación entre fachada y elemento desmontable será preferentemente de 2,00 m. Excepcionalmente, y siempre que no se limite la accesibilidad y movilidad, podrán autorizarse los adosados a fachada.<br>Los establecimientos que soliciten la autorización podrán ocupar la totalidad del frente de su fachada. Además, con autorización expresa del establecimiento colindante, podrán ocupar una longitud adicional del 50, frente al local colindante y con la misma anchura.<br>4. En cuanto al horario, únicamente se podrá ocupar el suelo público cuando el establecimiento esté abierto dentro de su horario comercial, y entre las 9:00 y las 21:00 horas. Excepcionalmente, se podrá ampliar este horario en aquellas peticiones especiales, fuera de las ocupaciones habituales, que los comerciantes dirijan al Ayuntamiento.<br>5. No podrán almacenarse o apilarse en la calle productos, cajas o materiales, ni los |

**Esp. kodea:** 2023HORD0004

**Gaia:** UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA, BIDE PUBLIKOA TERRAZEKIN (MAHAI-AULKIEKIN) ETA BESTE INSTALAZIO BATZUEKIN OKUPATZEA ARAUTUKO DUENA.

| | | |
|---|---|---|
| instalazioetako hondakinak ere, arrazoi estetikoak edo higienekoak direla medio.<br>6. Establezimendua ixterako, okupazioko material guztiak gorde beharko dira.<br><br>7. Jaialdi, kontzertu, kirol edo kultur ekitaldi eta bestelako ekintza ludikoak direla eta, beharrezko ikusten denean, ordutegi konkretu batean edo egun konkretu batzuetan erakustokia kentzeko agindu ahal izango du Udalak, inolako kalte-ordainik gabe.<br>8. Kanpo elementuak estetikoki egokiak izan beharko dira eta ondo kokatuta egon beharko dute, inori trabarik egin gabe eta oinezkoen pasaera oztopatu barik.<br>9. Toldoak jarri nahi badira, hirigintza araudian jasotakoaren arabera egin beharko da.<br><br>10. Kasu bakoitzean, bide publikoa okupatzeagatik dagokion tasa ordaindu beharko du titularrak.<br>11. Ohiko erabilpenerako ez diren kasuetan (adibidez merkealdietan edo Merkemerkauan, merkataritza azoketan, kanpaina bateratuetan...), betiere ordenantzako baldintza fisikoak beteta, Toki Garapen Sailera aurkeztutako aurretiazko komunikazio bidez egingo da kale-okupazioa. Beti ere erantzukizun eta ondorioen kalterik gabe.<br><br>Komunikazio horretan, ezarri nahi diren elementuak deskribatu beharko dira, irudi edo argazki bat erantsita.<br>Horrelako ekintza zehatzetarako, Toki Garapen Sailari egindako eskaera bateratuak onartuko dira. | | residuos de las instalaciones, por razones estéticas o higiénicas.<br>6. Para el cierre del establecimiento se deberán guardar todos los materiales de ocupación.<br><br>7. Cuando se considere necesario, en relación con festivales, conciertos, eventos deportivos o culturales y otros actos lúdicos, el Ayuntamiento podrá ordenar la retirada de la instalación en un horario concreto o en fechas concretas, sin indemnización alguna.<br>8. Los elementos exteriores deberán ser estéticamente adecuados y deberán de estar bien ubicados, sin entorpecer a nadie ni perturbar el paso de peatones.<br>9. La instalación de toldos deberá realizarse de acuerdo con lo previsto en la normativa urbanística.<br>10. El o la titular abonará, en cada caso, la tasa que le corresponda por la ocupación de la vía pública.<br>11. En los casos que no sean de uso habitual (por ejemplo, en rebajas o en Merkemerkaua. mercadillos comerciales, campañas conjuntas...), siempre que se cumplan las condiciones físicas de la ordenanza, la ocupación de calle se realizará mediante comunicación previa al departamento de Desarrollo Local. Siempre sin perjuicio de sus responsabilidades y las consecuencias.<br>En dicha comunicación se describirán los elementos que se pretenden implantar, adjuntando una imagen o fotografía. |

| **Kodea** | AG25/08998 | **Udala** | Arrasate/Mondragón |
|---|---|---|---|
| **CUDO** | 000.0055.AAA1DX09.N.noxo | | |
| **URL** | https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DX09N.noxo | | |

Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.

| | | |
|---|---|---|
| | | Para este tipo de acciones concretas se admitirán solicitudes conjuntas al Departamento de Desarrollo Local. |
| **V. KAPITULUA. BESTELAKO BALDINTZAK**<br><br>***14.Artikulua. Hizkuntza Baldintzak.***<br><br>179/2019 Dekretuak, Euskadiko Toki Erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak hizkuntzaren arloan garatzen duenak, eskumena ematen dio Udalari herriko espazio publikoan kontsumitzaileentzat eta erabiltzaileentzat jarritako informazio idatzia euskaraz egongo dela arautzeko.<br><br>Ondorioz, okupatutako eremuetan, jendearentzat eskuragarri eta bistan jartzen diren testuak (menuak, prezioen zerrendak, kartelak, eskaintzak, arbeletako oharrak, etab.) euskaraz idatziko dira. Beste hizkuntza batzuetan ere idatzita badaude, lehentasuna Euskarari emango zaio (hurrenkeran, tamainan...).<br><br>Establezimenduek Euskara Zerbitzuaren laguntza izango dute testuak euskaratzeko.<br><br>Edonola, une oro bete beharko dira Udalak aldi bakoitzerako onartzen dituen euskararen | | **CAPITULO V. OTROS REQUISITOS**<br><br>***Artículo 14. Condiciones Lingüísticas***<br><br>El Decreto 179/2019, de Normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las Instituciones Locales de Euskadi y la Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi en materia lingüística, atribuye al Ayuntamiento la competencia para regular que la información escrita destinada a los consumidores y usuarios en el espacio público de la localidad sea en euskera.<br><br>En consecuencia, los textos que se pongan a disposición del público y a la vista en las zonas ocupadas (menús, listas de precios, carteles, ofertas, notas en las pizarras, etc.) se redactarán en euskera. Si están redactados en otros idiomas, se dará prioridad al Euskera (en orden, tamaño...).<br><br>Los establecimientos podrán contar con la colaboración del Servicio de Euskera municipal para la traducción de los textos al euskera.<br><br>En todo caso, deberán cumplirse en todo momento los planes de normalización del uso del euskera y las acciones de promoción del |

| | | |
|---|---|---|
| erabilerarako normalizazio planak eta euskara sustatzeko ekintzak. | | euskera que apruebe el Ayuntamiento para cada ocasión. |
| ***15.Artikulua. Berdintasun Baldintzak***<br>Kontuan izango dira eta jarraituko dira 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateratua onartzen duenak aipatzen dituen printzipioak.<br><br>Horrela, honako baldintzak hartu beharko dituzte kontuan:<br><br>• Komunikaziorako materialetan hizkuntza ez-sexista erabiliko da.<br>• Ez dira onartuko emakumeenganako irudi diskriminatzaile nahiz estereotipatuak.<br><br>• Berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta rol zein genero identitateen aniztasunak jasoko dira irudietan.<br><br>• Ez dira jarrera matxistak onartuko.<br>• Neurriak hartuko dira sexu jazarpena eta sexu ondoriozko laneko jazarpena saihesteko, eta gertatzen den kasuetarako esku hartzeko protokolo bat zehaztuta egon beharko da aurretiaz. | | ***Artículo 15. Condiciones de Igualdad***<br><br>Se tendrán en cuenta y se seguirán los principios a los que se refiere el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.<br><br>Así, deberán tener en cuenta las siguientes condiciones:<br><br>• En los materiales de comunicación se hará un uso no sexista del lenguaje.<br>• No se aceptarán imágenes discriminatorias ni estereotipadas de las mujeres.<br>• En las imágenes se recogerán valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y diversidad de roles e identidades de género.<br>• No se aceptarán actitudes machistas.<br>• Se adoptarán medidas para evitar el acoso sexual y laboral por razón de sexo, debiendo estar previamente definido un protocolo de intervención para los casos que se produzcan. |
| **VI. KAPITULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA**<br>***16.Artikulua. Udal lizentzia***<br><br>1. Terraza edo jarduera komertzialeko elementuak erabilera publikoa duen lurzoruan | | **VI. CAPÍTULO. RÉGIMEN JURÍDICO**<br><br>***Artículo 16. Licencia municipal***<br><br>1. La instalación de elementos de terraza o de actividad comercial en suelo de uso |

| | | |
|---|---|---|
| jarri ahal izateko, aurretik lortu beharko da egoera hori ahalbidetzen duen udal baimena. | | público requerirá la previa obtención de la correspondiente licencia municipal que posibilite dicha situación. |
| 2. Lizentzia hori ostalaritza edo merkataritza jardueren titular den pertsona fisiko zein juridikoak eskatu beharko du eta, baimena lortzeko, establezimenduak legezko jarduera izan behar du eta ezin du udalarekin zorrik izan. | | 2. Esta licencia deberá ser solicitada por la persona física o jurídica titular de actividades hosteleras o comerciales y, para obtener la autorización, el establecimiento deberá tener la actividad en regla, y no tener deudas con el Ayuntamiento. |
| 3. Lizentzia eskatu nahi duenak dagokion eskabidea aurkeztu beharko dio udalari, horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabilita (inprimakia eskuragarri izango da ordenantza honen eranskinetan, udal webgunean eta Bezeroaren Arreta Zerbitzuko -BAZ- bulegoan). | | 3. El solicitante de la licencia deberá presentar la correspondiente solicitud ante el Ayuntamiento, junto al impreso habilitado para tal efecto, y que estará disponible en los Anexos de esta Ordenanza, en la página Web municipal y en la oficina del Servicio de Atención al Cliente-BAZ. |
| 4. Izaera Juridikoko titularrek elektronikoki egin beharko dute eskaera, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 14. artikuluan ezarritakoa aplikatuta, eta Udalak modu berean erantzungo dio. | | 4. Las personas titulares de naturaleza jurídica deberán solicitarlo electrónicamente, en aplicación de lo establecido en el artículo 14 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, a lo que el Ayuntamiento responderá en los mismos términos. |
| Hau da, izaera juridikoa duen eskatzailearen eta Udalaren arteko harremana modu telematikoan gauzatuko da. | | Es decir, la relación entre el/la titular-solicitante con personalidad jurídica y el Ayuntamiento se realizará de forma telemática. |
| Eskatzailea pertsona fisikoa den kasuetan, honen aukerakoa izango da eskaera eta harremana modu elektronikoan edo modu fisikoan egitea. Azken kasu horretan, eskaera inprimakia BAZ-en aurkeztu beharko da. | | En el caso de que el/la titular-solicitante sea una persona física, podrá optar por realizar la solicitud y el contacto de forma electrónica o de forma física. En este último caso, el impreso de solicitud deberá presentarse en el BAZ. |

| | | |
|---|---|---|
| 5. Lizentzia eskaerak, beti, okupazioa egingo den ekitaldiaren aurreko abenduan edo ekitaldi bertako urtarrilean egin beharko dira.<br><br>Behin lizentzia jaso eta instalazioak martxan eduki ondoren, denborara aldaketarik eskatu nahi bada, horiek ere hasi behar den urte ekitaldiaren aurreko abendua eta ekitaldi horretako urtarrila artean aurkeztu beharko dira.<br><br>Salbuespena jarduera urtean zehar martxan hasten deneko kasua izango da. Hauetan eskaera urteko edozein garaitan aurkeztu ahal izango da.<br><br>6. Terraza edo komertzioetako kanpo elementuak baimentzen dituen lizentziaren epealdia 4 urterako emango da (1+3); hau da, emandako baimenak urtero berriztuko dira modu automatikoan (jarraian aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da horretarako), baldin eta ez badira baimena emateko lokalari jarri zitzaizkion baldintzak aldatzen, edo ordenantza honetako arautegia bete ez izanagatik lizentzia kentzen. Halakorik gertatu ez bada, lau urteak igarota, berriz eskatu behar izango da udal baimena.<br><br>Aurrez lizentzia izanda, horren epe mugara gerturatzerakoan, Udal baimen berria abendu eta urtarrila tartean eskatu denean, udal ebazpena jaso bitartean, terrazak probisionalki mantendu ahal izango dira, aurrez zituen baldintza berdinean. | | 5.Las solicitudes de licencia deberán realizarse, en todo caso, en el mes de diciembre inmediatamente anterior al ejercicio de la ocupación, o en enero del año en el que se pretende realizar la ocupación.<br><br>Si una vez concedida la licencia y puestas en servicio las instalaciones, se desea solicitar algún cambio, éstos deberán presentarse también entre el mes de diciembre del ejercicio anterior a aquel en que deba iniciarse y el mes de enero del mismo ejercicio.<br><br>Se exceptúa el caso en el que el inicio de la actividad se realice a lo largo del año. En ellos se podrá presentar la solicitud en cualquier época del año.<br>6. El plazo de la licencia que autorice los elementos exteriores de las terrazas o comercios se otorgará por un período de 4 años (1+3), es decir, las autorizaciones concedidas se renovarán anualmente de forma automática, mediante la presentación de la siguiente documentación, siempre y cuando no se modifiquen las condiciones impuestas al local para su autorización o se retire la licencia por incumplimiento de la normativa de esta ordenanza. Si no se da ninguno de esos dos supuestos, transcurridos los cuatro años, deberá solicitarse nuevamente la licencia municipal.<br><br>Una vez se haya obtenido la licencia y se aproxime su vencimiento, siempre que el nuevo permiso municipal haya sido solicitado entre diciembre y enero, provisionalmente, se podrán mantener las terrazas en las condiciones autorizadas previamente, hasta |

| | | |
|---|---|---|
| | | que se reciba la resolución municipal correspondiente. |
| 7. Dena den, urtero (abendua-urtarrilean), honakoak aurkeztu beharko dira baimenaren indarraldia amaitu ez dadin, eta aurkezten ez badira, lizentzia kendu ahal izango du Udalak:<br>• Erantzukizun Zibileko poliza eguneratua dagoenaren ziurtagiria.<br>• Establezimenduaren pareko espazioaz haratago okupatzen bada, albokoen adostasuna adierazten duen agiri eguneratua (ondoko lokalaren titularrek emandako baimenak urte beterako, bi urtetarako edo lau urterakoak izan daitezke; lortutako baimenaren arabera, adostasun-dokumentua markatutako epealdiaren arabera aurkeztu beharko da; urtero, bi urtean behin edo lau urtean behiz terraza lizentzia eskatzearekin batera).<br><br>Agiri hauek ez badira aurkezten, udalak lizentzia kendu diezaioke titularrari. | | 7. No obstante, anualmente (diciembre-enero), para evitar el fin de la vigencia de la autorización, habrá que presentar la siguiente documentación, y en caso contrario, el Ayuntamiento podrá retirar la licencia:<br>• Certificado o póliza de Responsabilidad Civil actualizada.<br>• Si se ocupa más allá del espacio equivalente al establecimiento, documento actualizado de conformidad de los colindantes. (los permisos emitidos por los titulares del local vecino podrán ser anuales, bianuales o para cuatro años; dependiendo del permiso obtenido, la conformidad se tendrá que presentar de acuerdo a la periodicidad marcada: todos los años, cada dos años o cada cuatro años junto a la solicitud de licencia de terraza).<br><br>La no presentación de esta documentación podrá dar lugar a la no revocación de la licencia por parte del Ayuntamiento. |
| ***17.Artikulua. Eskabidea eta horrekin batera aurkeztu beharrekoa.***<br><br>Lizentzia berria eskuratzeko eskaera orriarekin batera, interesdunak ondorengo informazioa eta agiriak aurkeztu beharko ditu:<br><br>a) Eskatzailearen identifikazioa<br>Eskatzailea pertsona juridikoa bada, ordezkaritzaren frogagiria erantsi beharko da. | | ***Artículo 17. La solicitud y la documentación a presentar junto a la misma***<br><br>Junto con la instancia de solicitud de nueva licencia, el interesado deberá aportar la siguiente información y documentación:<br><br>a) Identificación del/de la solicitante<br>En el caso de que la persona solicitante sea una persona jurídica, se deberá adjuntar el documento acreditativo de la representación. |

| | | |
|---|---|---|
| b) Jardueraren izena eta kokapena<br>c) Jarduerari buruzko datuak eta identifikazio fiskala<br>d) Eskatzailearen izenean jarduera gauzatzeko Udalak, aurrez, emandako baimenaren erreferentzia, halakorik denean.<br>e) Aldameneko edo aurreko lokalaren jabearen berariazko baimena, horiei legozkiekeen kanpo espazioak okupatuko balira (gehienez eskatzailearen fatxadaren luzera baino % 50 gehiago).<br>----<br>f) Erantzukizun Zibileko aseguru polizaren kopia.<br>g) Instalazio proposamenaren planoa edo kotadun krokisa, elementu guztien deskribapenarekin eta jarri nahi diren kopuruak zehaztuta.<br>Deskribapenak zehatza izan beharko du: materialak, koloreak, neurriak... eta, ahal dela, argazki edo grafikoak erantsiko zaizkio, udalak zalantzarik gabe ulertu dezan eskaera zertan zehazten den.<br>h) Eskaeran aparkalekuak hartzeko baimena eskatzen bada, terraza espaloiaren mailan jarriko dela eta ibilgailuetatik babesteko elementuak izango dituela egiaztatzeko agiri grafikoak (oinplano eta altxaerak) eta teknikoak aurkeztu beharko dira. Proposamenean fotomuntaketa edo hiru dimentsioko muntaketa bat ere sartu beharko da. | | b) Denominación y ubicación de la actividad<br>c) Datos de la actividad e identificación fiscal<br>d) Referencia, en su caso, de la autorización previa concedida por el Ayuntamiento para llevar a cabo la actividad en nombre de la persona solicitante.<br>e) Autorización expresa del/de la propietario/a del local contiguo o delantero, en caso de ocupación de espacios exteriores que pudieran corresponder a los mismos (hasta un máximo del 50% del tamaño de la fachada del/ de la solicitante).<br>---<br>f) Copia de la póliza de seguro de Responsabilidad Civil<br>g) Plano o croquis acotado de la propuesta de instalación, describiendo todos los elementos y especificando las cantidades que se pretenden colocar.<br>La descripción deberá ser precisa: materiales, colores, dimensiones... y, en la medida de lo posible, se adjuntarán fotografías o gráficos, para que el ayuntamiento entienda de forma clara en qué se concreta la solicitud.<br>h) En el caso de que en la solicitud se pida la autorización para ocupar aparcamientos, se tendrá que presentar la documentación gráfica (plano en planta y alzados) y técnica, que acredite que la terraza se sitúa a nivel de acera y dispone de elementos de protección para los vehículos. La propuesta deberá incluir |

| | | |
|---|---|---|
| Amaierako emaitza ikusiko da muntaketa horretan, hainbat ikuspegitatik eta plano xehatuak ere izango ditu, planta eta altxaera zehaztuta. Eraikuntzako soluzio bideak ondo uztartu behar du inguruko espazioen eta eraikuntzen ezaugarriekin. Eskaeran egitura egonkor bidezko estalki bat ere sartzen bada, horretarako eskumena duen teknikari batek idatzitako proiektua aurkeztuko da, instalazioko materialen diseinua, kalitatea, ezaugarriak eta estetika aztertzeko agiri grafiko eta tekniko guztiekin. | | también un fotomontaje o montaje tridimensional. En este montaje se visualizará el resultado final desde diferentes puntos, con planos detallados de planta y alzado. Las soluciones constructivas deberán compaginar con las características de los espacios y construcciones circundantes.En el caso de que la solicitud incluya una cubierta con estructuras estables, se presentará un proyecto redactado por técnico competente que incluya toda la documentación gráfica y técnica necesaria para el análisis del diseño, calidad, características y estética de los materiales de la instalación. |
| Horren ordez, elementuaren sistemaren homologazio-ziurtagiri bat ere aurkeztu ahal izango da. | | Dicho proyecto podrá ser sustituido por un certificado de homologación del sistema del elemento. |
| Proiektu horretan edo homologazio-ziurtagiriaren dokumentazio teknikoan argi agertu beharko da: terrazaren forma eta neurriak, materialak, atalak, finkatzeko moduak, haizearekiko erresistentzia, suarekiko eraikuntzako elementuek, apaingarriek edo altzariek duten erreakzio maila, etab. | | En el proyecto o en la documentación técnica del certificado de homologación deberá constar claramente la forma y dimensiones de la terraza, materiales, partes, formas de fijación, resistencia al viento, grado de reacción de los elementos constructivos al fuego, ornamentación o mobiliario, etc. |
| Kasu hauetan, aurretiazko kontsulta bideratu diezaiokete udalari interesdunek. Horretarako instalazioaren deskribapen-krokisa, okupazioaren neurriak (horizontal zein bertikal), espazio publikoan duen eraginaren deskribapena eta jarri nahi denaren infografia edo argazki-muntaia bat ere aurkeztu beharko da. Udalak pertsonalki erantzungo dio titularrari eskatuko zaizkion baldintza zehatzekin, behin betiko proiektua Udalaren jarraibideak aintzat | | En estos casos, las/los interesada/os previamente podrán realizar consultas al Ayuntamiento. Para ello se deberá aportar un croquis descriptivo de la instalación, dimensiones de ocupación (tanto horizontal como vertical), descripción de la afección al espacio público y una infografía o montaje fotográfico de lo que se pretende instalar. El Ayuntamiento responderá personalmente |

| | | |
|---|---|---|
| hartuta egin dadin eta, horrela, beharrezkoak ez diren lan eta gastuak saihestuz.<br><br>i) Udal jabarian obrak egin behar badira, gainera, deskripzio grafikoaz gain, lanen aurrekontu xehatua aurkeztu beharko da.<br><br>j) Merkataritzako okupazioen kasuan, elementuak deskribatzen eta azalerak adierazten dituen krokis bat nahikoa izango da, materialak, neurriak eta kokalekua zehaztuta. | | con las condiciones concretas que se exigirán al titular para que el proyecto definitivo se elabore siguiendo las instrucciones requeridas, evitando así trabajos y gastos innecesarios.<br><br>i) En el caso de que se vayan a realizar obras en el dominio municipal, además de la descripción gráfica, se deberá presentar un presupuesto detallado de las mismas.<br><br>j) En el caso de ocupaciones comerciales, bastará con un croquis descriptivo de los elementos y de las superficies, con indicación de materiales, dimensiones y ubicación. |
| ***18.Artikulua. Ordutegiak***<br><br>1. 17/2019 DEKRETUA, otsailaren 5ekoa, Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamenduak, 35. artikuluak dioena kontuan izanda, Arrasateko establezimenduetako terrazak, taberna sailkatzen duen taldea edozein izanda ere, eta beti ere establezimendu bakoitzak baimenduta daukanaren barruan, gehienez ordutegi hauen tartean jarri eta batu beharko dituzte terraza eta mahai-aulkiak: | | ***Artículo 18. Horarios***<br><br>1. Según el artículo 35 del DECRETO 17/2019, de 5 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de Desarrollo de la Ley de Espectáculos públicos y actividades recreativas, las terrazas de los establecimientos de Arrasate, teniendo en cuenta el grupo en el que está clasificado el bar, y siempre dentro de lo que cada establecimiento tenga autorizado, deberán poner y retirar las terrazas y sillas de mesa en los siguientes horarios máximos: |

**Esp. kodea:** 2023HORD0004

**Gaia:** UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA, BIDE PUBLIKOA TERRAZEKIN (MAHAI-AULKIEKIN) ETA BESTE INSTALAZIO BATZUEKIN OKUPATZEA ARAUTUKO DUENA.

| | | |
|---|---|---|
| **URRIAREN 15etik MAIATZAREN 14ra (NEGUKO ORDUTEGIA)**<br>***DEL 15 DE OCTUBRE AL 14 DE MAYO (HORARIO DE INVIERNO)*** | | |
| Igandea-*Domingo*<br>Astelehena-*Lunes*<br>Asteartea-*Martes*<br>Asteazkena-*Miércoles*<br>Osteguna- *Jueves* | *De* 08:00etatik | *a* 22:30era |
| Ostirala- *Viernes*<br>Larunbata-*Sábado* | *De* 08:00etatik | *a* 00:00ra |
| **MAIATZAREN 15etik URRIAREN 14ra (UDAKO ORDUTEGIA)**<br>***DEL 15 DE MAYO AL 14 DE OCTUBRE (HORARIO DE VERANO)*** | | |
| Igandea-*Domingo*<br>Astelehena-*Lunes*<br>Asteartea-*Martes*<br>Asteazkena-*Miércoles* | *De* 08:00etatik | *a* 23:30era |
| Osteguna-*Jueves*<br>Ostirala-*Viernes*<br>Larunbata-*Sábado* | *De* 08:00etatik | *a* 00:30era |
| **EGUN BEREZIETAN (JAIAK ETA ZERRENDATUTAKOAK)***<br>**FECHAS ESPECIALES (*)** | | |
| Igandea-*Domingo*<br>Astelehena-*Lunes*<br>Asteartea-*Martes*<br>Asteazkena-*Miércoles* | *De* 08:00etatik | *a* 00:30era |
| Osteguna-*Jueves*<br>Ostirala-*Viernes*<br>Larunbata-*Sábado* | *De* 08:00etatik | *a* 01:30era |

| | | |
|---|---|---|
| * Egun berezi modura hartuko dira, Udalak, urtero alkate ebazpenez izendatzen dituenak. | | (*) Se considerarán días especiales, aquellos que el ayuntamiento designe anualmente por resolución del/la alcalde/sa |
| 2. Terrazak ezingo dira muntatzen hasi goizeko 08:00ak baino lehen.<br><br>3. Terraza edo kale aldera leiho bat daukaten establezimenduetan, leihoa 22:30tan | | 2. El montaje de las terrazas no podrá comenzar antes de las 8 de la mañana.<br><br>3. En los establecimientos que dispongan de una ventana hacia la calle o terraza, ésta deberá cerrarse a las 22:30 horas, para que la |

| | | |
|---|---|---|
| itxi beharko da, establezimenduko musikak auzotarren lasaitasuna hautsi ez dezan. | | música del establecimiento no perturbe la tranquilidad de los vecinos. |
| 4. Terraza ordutegia bukatuta, establezimenduak irekita egoteko ordutegia badu oraindik, terrazetako elementuak eremuan bertan batu eta pilatzeko aukera egongo da. Behin taberna itxita, elementu guztiak barruan jaso beharko dira. Pilaketa hori egiteko 30 minutu egongo dira, behin terraza ixteko ordua iritsita. Pilaketako elementu guztiak lotuta geratu beharko dira. | | 4. Una vez finalizado el horario de terrazas, si el establecimiento mantiene el horario de apertura, los elementos de las terrazas podrán ser acopiados en el propio ámbito. Una vez cerrado el bar, todos los elementos deberán ser recogidos en su interior. Para el acopio se dispondrá de 30 minutos, una vez llegada la hora de cierre de la terraza. Todos los elementos del acopio deberán quedar unidos. |
| 5. Terrazak jasotzeko ordua iritsita (alegia, elementuak pilatzekoa), ezingo da bezerorik egon kanpo instalazioetan. Ordu horretan, establezimenduko langileak izango dira bertan egon ahalko diren bakarrak, gauzak jasotzeko eta garbitzeko. Lan horiek tabernako ateak itxita eta zaratarik atera gabe egin beharko dira. | | 5. Llegada la hora de recogida de terrazas (es decir, de acopio de elementos), no podrá haber clientes en el exterior de las instalaciones. A esa hora, el personal del establecimiento será el único que pueda estar presente para recoger y limpiar los enseres. Estos trabajos deberán realizarse con las puertas del bar cerradas y sin producir ruido. |
| 6. Ondoren, behin tabernaren itxiera ordua heldutakoan, terrazako elementu guztiak establezimenduan bertan gordeko dira, edo horretarako egokitutako lekuan. Gaua kanpoan pasa ahalko dute, salbuespenez eta soilik establezimendu barruan espaziorik ez baleko, eguzkitako handiek. Hau guztia egin beharko da, joko eta ikuskizunetako araudian jasotako 30 minutu gehigarrietan, behin taberna itxi eta hura jasotzekoak direnetan. | | 6. Posteriormente, una vez llegada la hora de cierre del bar, todos los elementos de la terraza se guardarán en el propio establecimiento o en el lugar habilitado para ello. Las sombrillas grandes podrán pernoctar en el exterior, de forma excepcional y únicamente por falta de espacio suficiente dentro del establecimiento. Todo ello se realizará en los 30 minutos adicionales recogidos en la normativa de juego y espectáculos, una vez cerrado el bar, que serán para y a recoger el mismo. |
| Establezimenduan terrazako elementuak gordetzeko lekurik ez dagoelako beste lokalen | | Si por falta de espacio en el establecimiento para guardar los elementos de la terraza fuera necesario guardarlos en otro local, |

| | | |
|---|---|---|
| batean gorde behar izanez gero, Udalari jakinarazi beharko zaio non gordeko diren. Lokal horrek beharrezko baldintza guztiak bete beharko ditu. | | deberá comunicarse al Ayuntamiento el lugar donde se depositarán, debiendo el establecimiento reunir todas las condiciones necesarias. |
| 7. Behin establezimendua ixteko ordua iritxi eta taberna garbitzeko tarte horretan, kanpo instalazioak egon diren gune osoa garbi-garbi utzi beharko da, eta lizentziaren titularren ardura izango da garbiketa hori bermatzea. | | 7. Una vez finalizado el horario de cierre del establecimiento y durante el periodo de limpieza del bar, deberá quedar limpia toda la zona en la que se hayan desarrollado las instalaciones exteriores, siendo responsabilidad de las y los titulares de la licencia garantizar dicha limpieza. |
| 8. Garbiketaren ardura bera izango dute merkataritzako establezimenduek ere. | | 8. Tendrán la misma responsabilidad de limpieza los establecimientos comerciales. |
| 9. Ibilgailuekin partekatutako espazioetan, horientzat sarbidea ordutegi mugatuan soilik egin daitekeenetan, ordutegi horietan ezingo da terrazarik jarri ibilgailuentzat 3.5 metroko zabalera minimoa betetzeko aukerarik ez bada. Adibidez: Alde Zaharrean, goizez 9:15-12:00 artean, eta asteartetan, horrez gain, 19:30-21:00 artean. | | 9. En los espacios compartidos con vehículos, para los que el acceso sólo pueda realizarse en horario limitado, no podrán instalar terrazas en dichos horarios sin que sea posible cumplir con la anchura mínima de 3.5 metros para los vehículos. Ejemplo: en el Casco Histórico, por la mañana entre las 09: 15-12:00 y los martes entre las 19:30-21:30. |
| 10. Titularraren ardura izango da ordutegia errespetatzea, bezeroek bizilagunei eragozpenik ez sortzea eta eremutik kanpora kontsumiziorik ez izatea. | | 10. El o la titular será responsable de respetar el horario, de no causar molestias a los vecinos, y de que no se consuma fuera del recinto. |
| 11. Merkataritzako establezimenduen kasuan, ordutegia mugatuko da dendaren irekitze-ordutegira eta ezingo da 09:00etatik 21:00era baino gehiago luzatu. | | 11. En el caso de establecimientos comerciales, el horario se limitará al de apertura de la tienda y no podrá prolongarse más allá de las 9:00 a las 21:00 horas. |
| 12. Inola ere, ezingo da okupaziorik egin ostalaritzako edo merkataritzako establezimenduei onartutako irekiera-ordutegitik kanpo. | | 12. En ningún caso se podrá realizar la ocupación fuera del horario permitido a los establecimientos de hostelería o comerciales. |

**Esp. kodea**: 2023HORD0004

**Gaia**: UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA, BIDE PUBLIKOA TERRAZEKIN (MAHAI-AULKIEKIN) ETA BESTE INSTALAZIO BATZUEKIN OKUPATZEA ARAUTUKO DUENA.

| | | |
|---|---|---|
| ***19.Artikulua. Udalaren betebeharrak*** | | ***19.Artículo. Obligaciones del Ayuntamiento*** |
| 1. Behin eskaera jasotakoan, dokumenturen bat falta edo akatsen bat dagoela ikusi bada, udal zerbitzuek interesatuari eskatuko diote 10 eguneko epean beharrezko dokumentazioa osatu edo zuzendu dezala. Eskaera horretan ohartaraziko zaio baita, epe hori pasatakoan ezer jasotzen ez baldin bada, eskaera atzera botatzat joko dela eta espedientea izapide gehiagorik gabe artxibatuko dela. | | 1. Recibida la solicitud, si se observara la falta o deficiencia de algún documento, los servicios municipales requerirán al interesado para que en el plazo de 10 días complete o subsane la documentación necesaria. En dicha solicitud se le advertirá de que, transcurrido dicho plazo sin recibirse nada, se dará por desistida su petición y se archivará el expediente sin más trámites. |
| 2. Behin udalak eskaera jasotakoan, erantzuteko epea 3 hilabetetakoa izango da.<br><br>Epe horren barruan ez ebazteak eskaera ezetsi dela adieraziko du (isiltasuna negatiboa izango da). | | 2. Recibida la solicitud por el Ayuntamiento, el plazo de respuesta será de 3 meses.<br><br>La falta de resolución en dicho plazo tendrá efectos desestimatorios (el silencio será negativo). |
| 3. Eskaera jasotakoan, udal teknikariek dagokien txostena egingo dute, batez ere, eskaeraren proposamenak aparkalekuak edo galtzada hartzen dituenean. Kasu horretan, terraza gune horrek mugikortasun, irisgarritasun eta aparkaleku arazorik areagotzen ez dituela-eta, aldeko txostena jaso beharko du lizentziak aurrera egin aurretik. | | 3. Recibida la solicitud, las/los técnicos municipales emitirán el correspondiente informe, especialmente cuando la propuesta de solicitud comprenda aparcamientos o calzadas. En este caso, deberá contar con informe favorable previo a la licencia, que incluya que la zona de terraza no supone un incremento de los problemas de movilidad, accesibilidad y aparcamiento. |
| 4. Lizentzia emateko ebazpenak jasoko ditu:<br>• Instalazioak hartuko duen azalera adierazten duen planoa, elementu guztien kokapena jasoko duena. | | 4. Las resoluciones de concesión de licencia contendrán:<br>• Plano en el que se indique la superficie a ocupar por la instalación y la ubicación de todos los elementos. |

| | |
|---|---|
| • Baimendutako mahai eta aulki kopuru maximoa.<br>• Okupazioaren ordutegia.<br>• Ostalaritzako terrazen kasuan, establezimenduaren beraren taldea eta ordutegia.<br>• Baimenaren indarraldia.<br>• Bete beharreko bestelako baldintzak eta beharrezkotzat jotzen diren gainerako berezitasunak (adibidez, ordutegi murrizketak kale-garbiketa zerbitzua ez eragozteko). | • Número máximo de mesas y sillas permitidas.<br>• Horario de ocupación.<br>• En el caso de terrazas de hostelería, grupo y horario del propio establecimiento.<br>• Vigencia de la autorización.<br>• Otras condiciones a cumplir y demás particularidades que se consideren necesarias (por ejemplo, restricciones horarias para no impedir el servicio de limpieza viaria). |
| 5. Udalak lurrean markatuko du baimen bakoitzaren azaleraren muga. | 5. El Ayuntamiento marcará sobre el terreno el límite de superficie de cada autorización. |
| 6. Udalak, lizentziarekin batera, Udalaren bereizgarria izango duen dokumentu batean, baimendutako lizentziaren ezaugarriak eta planoa zehazten dituen dokumentua bidaliko dio interesatuari, honek establezimenduaren ate edo leihoan ikusgarri ipini dezan. | 6. El Ayuntamiento, junto con la licencia, remitirá a la persona interesada un documento con el distintivo del Ayuntamiento, donde se especifiquen las características y el plano de la licencia autorizada, a fin de que el propietario pueda colocarlo, de forma que sea visible, en la puerta o ventana del establecimiento. |
| 7. Lau urteko epea hurbiltzean, udalak gogora ekarriko dio titularrari iraungitzear dela baimena eta berriro eskatu behar duela. | 7. Al aproximarse el plazo de cuatro años, el ayuntamiento recordará al titular que está a punto de extinguir la autorización y que debe volver a solicitarla. |
| 8. Udaltzainek emandako baimenak betetzen direla eta ordenantza hau betetzen dela ziurtatzeko, patruilatze lanak egingo dituzte. | 8. Los/las agentes de la Policía Local realizarán labores de patrulla para asegurar el cumplimiento de las autorizaciones concedidas y el cumplimiento de la presente ordenanza. |
| 9. Baimenaren laugarren urtearen hasieran, Terrazen Mantentze eta Berritze Plana abiatzea. Horretarako udal teknikariek bisitak | 9. Al inicio del cuarto año de la autorización, se pondrá en marcha el Plan de |

| | | |
|---|---|---|
| egingo dituzte eta txostena idatziko dute terrazen egoeraren inguruan. Txostenen ondorioen berri emango zaie titularrei. Ondorioz, baldintzen aldaketak edo eskakizun gehigarriak jar daitezke baimena berritzeko. Titularrek zein instalazioaren eraginpeko pertsonek planaren gaineko iradokizunak egin alako dituzte. | | Mantenimiento y Renovación de Terrazas. Para ello, las/los técnicos municipales realizarán visitas y redactarán un informe sobre el estado de las terrazas. Se comunicarán a las/los titulares las conclusiones de los informes. En consecuencia, podrán imponerse modificaciones de las condiciones o requisitos adicionales para la renovación de la autorización. Tanto las personas titulares, como las personas afectadas por la instalación podrán realizar sugerencias al plan. |
| ***20.Artikulua. Lizentziaren titularraren betebeharrak***<br><br>1. Terraza, erakustoki edo antzeko instalazioren bat jarri nahi bada, udal baimena eskatu beharko du, eskatutako dokumentazio guztiarekin.<br>2. Behin udal baimena jasotakoan, hilabeteko epean ordaindu beharko ditu dagozkion tasa eta ordainarazpenak.<br><br>Ordainketa egin arte ezingo da okupazioa gauzatu. Hau da, lizentzian zehaztutako espazio publikoaren zatia erabiltzeko eskubidea eskuratzeko, udal-baimena eta tasaren ordainketa eginda eduki behar dira.<br><br>Hilabeteko epe horretan ez bada ordainketarik egiten, lizentzia iraungita geratuko da ondorio guztietarako, eta egindako likidazioa baliogabetu egingo da. Ondorioz, lizentzia berria eskatu beharko da.<br><br>3. Baimena indarrean sartu dadin, 300 eurotako fidantza ezarri beharko du Udalean, | | ***Artículo 20. Obligaciones del/la titular de la licencia***<br><br>1. Si se pretende instalar una terraza, expositor o instalación similar, deberá solicitar la correspondiente autorización municipal con toda la documentación requerida.<br><br>2. Una vez recibida la autorización municipal, deberá abonar las tasas y pagos correspondientes en el plazo de un mes.<br><br>No se podrá ejecutar la ocupación hasta que no se haya efectuado el pago. Es decir, el derecho al uso de la parte del espacio público definida en la licencia requiere estar en posesión de la autorización municipal y pago de la tasa.<br><br>La falta de pago en el plazo de un mes producirá la caducidad de la licencia a todos los efectos, con revocación de la liquidación practicada. En consecuencia, deberá solicitarse una nueva licencia.<br><br>3. Para que la autorización entre en vigor, deberá depositar en el Ayuntamiento una |

| | | |
|---|---|---|
| ordenantza honetan ezarritako betebeharren betepen berme gisa. Egitura egonkorren kasuan, 600€koa izango da fidantza hori.<br><br>Jardueraren partetik betebeharren bat gauzatu ez denean eta eginbehar hori Udalak egin duenean (konponketa, garbiketa, elementuak zorutik kendu adibidez), kostu hori fidantza horren kargu kobratuko du Udalak.<br><br>Fidantzaren erabilpen hori egiten bada, titularrak hilabeteko epean fidantza hori berrezarri beharko du.<br><br>4. Zaborraren eta uraren tasa ordaintzea. Udal lizentzia lau urtetako epealdi barruan urtero automatikoki luzatu dadin, zaborra eta uraren tasak ordainduta egon beharko dira. Tasa hauek ordaindu gabe izateak lizentzia indar gabe uztea eragingo du, edo eskatutako lizentzia ez eskuratzea.<br><br>5. Establezimenduaren sarreran (atean edo leihoren baten), lizentzia-agiria ikusgai egon beharko da uneoro, emandako planoarekin batera<br>6. Instalazioaren ondorioz bide publikoan egindako kalte guztiak konpondu beharko ditu.<br><br>7. Okupazioa, Udalak baimendutako azalera baino handiagoa ez izateaz arduratuko da.<br>8. Instalazioari jarritako ordutegia betetzea.<br><br>9. Behin terraza ordutegia amaitutakoan elementu guztiak batuko ditu. Ondoren, taberna | | fianza de 300 euros como garantía del cumplimiento de los requisitos establecidos en la presente Ordenanza. En el caso de estructuras fijas dicha fianza será de 600 €.<br>Cuando no se haya llevado a cabo algún requisito por parte de la actividad, y el Ayuntamiento haya llevado a cabo dicho requisito (por ejemplo, reparación, limpieza, retirada de elementos del suelo), el Ayuntamiento cobrará dicho coste con cargo a la fianza depositada.<br>En el supuesto de que se haga efectiva dicha disposición, el/la titular deberá reponerla en el plazo de un mes.<br><br>4. Pago de la tasa de basura y agua. Para que la licencia municipal se prorrogue automáticamente cada año en un plazo de cuatro años, deberán estar pagadas las tasas de basura y agua. El impago de estas tasas determinará la pérdida de vigencia de la licencia o la no obtención de la licencia solicitada.<br>5. Deberá exhibir un certificado de la licencia en la entrada del establecimiento (en la puerta o ventana), junto con el plano facilitado.<br>6. Deberá reparar todos los daños causados en la vía pública como consecuencia de la instalación.<br>7. Se ocupará de que la ocupación no exceda de la superficie autorizada por el Ayuntamiento.<br>8. Cumplir el horario establecido a la instalación.<br>9. Una vez finalizado el horario de terraza, recogerá todos los elementos. Posteriormente |

| | | |
|---|---|---|
| ixteko ordutik 30 minutu izango ditu ondoren terraza garbitzeko. | | dispondrá de 30 minutos desde la hora de cierre del bar para la limpieza de la terraza. |
| 10. Bera arduratuko da bizilagunek lasaitasunerako duten eskubidea errespetarazteaz, eta horregatik, ez du iskanbila, haserre eta zaratarik ateratzen utziko, batez ere gaueko 22.00tatik aurrera. | | 10. Será el encargado de hacer respetar el derecho a la tranquilidad de sus vecina/os, por lo que se encargará de que no haya ruido, disputas o reyertas, especialmente a partir de las 22.00 de la noche. |
| 11. Okupatutako eremua garbi-garbi mantenduko du egun osoan zehar. Aldian-aldian erratza pasatu eta garbi mantenduko du bere terraza edo instalazioen gunea. | | 11. Mantendrá la limpieza de la zona ocupada durante todo el día. Barrerá periódicamente y mantendrá limpia la zona de su terraza o instalaciones. |
| 12. Lan aldia amaitzean, erabilitako espazioa garbi usteaz gain, hondakinak bildu eta dagozkion edukiontzietan utziko ditu. | | 12. Al finalizar el periodo de trabajo, además de dejar limpio el espacio utilizado, recogerá los residuos y los depositará en los contenedores correspondientes. |
| 13. Laneguna amaitutakoan altzari eta elementu guztiak establezimenduaren barruan gordeko ditu, eguzkitako handiak gordetzeko lekurik ez daukan kasuan ezik. Halakoetan eguzkitako handiak bildu eta zuhaitzak ez diren elementuren bati lotuta utziko ditu. | | 13. Guardará todos los muebles y elementos en el interior del establecimiento una vez terminada la jornada laboral, salvo que no disponga de espacio para el almacenamiento de sombrillas de grandes dimensiones. En este caso recogerá las sombrillas y las dejará sujetas a algún elemento no arbóreo. |
| 14. Edozein momentutan uko egin ahal izango dio baimenari. Hori horrela izanda, udalari urtarrilak 31 baino lehenago jakinarazi beharko dio, sartu berri den urte horri dagozkion instalazioaren tasak ez ordaintzeko. | | 14. En cualquier momento podrá renunciar al permiso. Siendo esto así, deberá comunicarlo al Ayuntamiento antes del 31 de enero para no abonar las tasas de instalación correspondientes al año de nueva incorporación. |
| 15. Baimena iraungitzean, uko egitean ala bertan behera geratzean, terraza guztia kendu beharko du eta bide publikoa hasieran zegoen bezala utzi beharko du. | | 15. Cuando caduque la autorización, renuncie o deje sin efecto, deberá retirar toda la terraza y dejar la vía pública en su estado original. |
| 16. Jarduera aldatzen denean baimen berria eskatzea. | | 16. La solicitud de una nueva autorización en caso de cambio de actividad. |
| 17. Instalazioaren erabilera normal edo anormalagatik eratorritako kalteen ardura izango du titularrak. | | 17. La persona titular será responsable de los daños derivados del uso normal o anormal de la instalación. |

**Esp. kodea**: 2023HORD0004

**Gaia:** UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA, BIDE PUBLIKOA TERRAZEKIN (MAHAI-AULKIEKIN) ETA BESTE INSTALAZIO BATZUEKIN OKUPATZEA ARAUTUKO DUENA.

| | | |
|---|---|---|
| 18. Erantzukizun zibileko eta sute arriskurako aseguru polizak indarrean izatea, terrazen erabilera barne hartzen dutenak.<br>Ikuskizun publiko eta aisialdirako jarduerei buruzko Legearen arabera, babes hori hedatu beharko da terrazaren funtzionamenduagatik sor daitezkeen arriskuak barne hartzera.<br><br>19. Instalatzeko eta eraberritzeko obrarik ez egitea, udal baimenik izan gabe.<br>20. Interes publikoa dela-eta nork bere terrazaren egitura desmuntatzea eskatzen denean, une horretan hala egin dezala, bere kargu, inolako kalte-ordain eskubiderik sortu gabe.<br><br>21. Baimena iraungita, eremua libre uztea eta, urbanizazioa kaltetuta geratu bada, hori konpontzea, 15 eguneko epean. | | 18. Tener en vigor pólizas de seguro de responsabilidad civil y riesgo de incendio que incluyan el uso de terrazas.<br>De acuerdo con la Ley de Espectáculos públicos y actividades recreativas, esta protección deberá extenderse a los riesgos derivados del funcionamiento de la terraza<br><br>19. No realizar obras de instalación y reforma sin autorización municipal.<br><br>20. Que cuando por razones de interés público se solicite el desmontaje de la estructura de su terraza, lo haga en ese momento, a su cargo y sin generar derecho a indemnización alguna.<br><br>21. Una vez se caduque la autorización de ocupación, en el caso de que la zona haya quedado afectada, proceder en el plazo de 15 días a la reparación de la urbanización afectada. |
| **VII. KAPITULUA. DIZIPLINAZKO ARAUBIDEA**<br><br>***21.Artikulua. Ikuskaritza***<br><br>1. Udaltzaingoari dagokio ordenantza honen betetzea zaindu eta kontrolatzea.<br><br>2. Udaltzaingoak, eta edozein pertsonak jarri ahal izango du salaketa, idatziz, Udalaren aurrean, ordenantzaren edo baimenaren baldintzak urratu direnean, Prozedura Administratibo Orokorreko 39/2015 Legeko 66. artikuluaren xedapenak eta egiaztapena egiteko datuak beteta. | | **VII. CAPÍTULO REGIMEN DISCIPLINARIO**<br><br>***Artículo 21. Inspección***<br><br>1. Corresponde a la policía local la vigilancia y control del cumplimiento de la presente ordenanza.<br><br>2. La Policía Local y cualquier persona podrá denunciar por escrito ante el Ayuntamiento el incumplimiento de las condiciones de la ordenanza o autorización, cumplimentando las disposiciones del artículo 66 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo General y los datos para su verificación. |

| | | |
|---|---|---|
| 3. Jarritako salaketek, kasuan kasu egiaztatu ondoren, kautelazko neurriak ezartzea eta zigor espediente bat hastea ekarri dezake. | | 3. Las denuncias interpuestas, previa acreditación en cada caso, podrán dar lugar a la adopción de medidas cautelares y a la incoación de un expediente sancionador. |
| ***22.Artikulua. Baimenik gabeko instalazioak***<br><br>Erabilera publikoko lurzorua, horrelako instalazioen bidez, lizentziarik gabe okupatzea hirigintzako arau haustetzat jotzen da eta, zuzenean, aurretik jakinarazi gabe, udal langileengatik instalazio guztia kentzea ekartzeaz gain, arduradunari ordenamendu honetan aurreikusita dauden zigorrak jartzea eragin dezake.<br><br>Kendutako elementuak udal biltegira eramango dira, eta 6 hilabetetako epea gaindituta, inor erreklamatzen ez baditu, udalak suntsitu, berrerabili edo inori eman ahal izango dizkio.<br><br>Lizentzia iraungitzen denean terrazak jartzen segiko balu, baimenik gabeko instalazioaren izaera berbera izango luke. | | ***Artículo 22. Instalaciones no autorizadas***<br><br>La ocupación de suelo de uso público con este tipo de instalaciones sin licencia se considera una infracción urbanística y podrá conllevar directamente, sin previo aviso, la retirada total de las instalaciones por parte del personal municipal, así como la imposición al responsable de las sanciones previstas en este ordenamiento.<br><br>Los elementos retirados serán trasladados al almacén municipal, y si transcurrido el plazo de 6 meses no sean reclamados, el Ayuntamiento podrá proceder a su destrucción, reutilización o entrega a terceros.<br><br>Si una vez caducada la licencia continuase la instalación de la terraza, tendrá la misma naturaleza que la instalación no autorizada. |
| ***23.Artikulua. Lizentziaren baldintzak ez betetzea.***<br><br>1. Instalatutako terraza edo erakustokiak lizentzian ezarritakoa betetzen ez duenean, udal-agintariak baldintzak betetzen ez dituen elementuak berehala kentzeko agindu ahal izango du, dagokion zigor espedientea irekitzeaz gain.<br><br>2. Lizentziako baldintzak edo ordenantza honek ezarritakoak betetzen ez badira isun ekonomikoa jarriko da, indarrean den legeak | | ***Artículo 23. Incumplimiento de las condiciones de la licencia.***<br><br>1. Cuando la terraza o expositor instalado incumpla lo establecido en la licencia, la autoridad municipal podrá ordenar la retirada inmediata de los elementos que incumplan las condiciones, sin perjuicio de la incoación del correspondiente expediente sancionador.<br>2. El incumplimiento de las condiciones legales o de las condiciones establecidas en la presente Ordenanza darán lugar a la |

| | | |
|---|---|---|
| ezarritako prozedimendua beteta eta ordenantza honetan aipatutako zigorren arabera.<br><br>3. Horrez gain, ekar lezake lizentzia galtzea eta bi urtez, gehienez, berriz ez eskatu ahal izana.<br><br>4. Ordenantza hau ez betetzearen erantzulea lizentziaren titularra izango da. | | imposición de la sanción económica, con sujeción al procedimiento establecido en la legislación vigente y a las sanciones contenidas en la presente Ordenanza.<br><br>3. Sin perjuicio de lo anterior, podrá conllevar la pérdida de la licencia y la imposibilidad de volver a solicitarla por un periodo máximo de dos años.<br><br>4. El responsable del incumplimiento de este requisito será el titular de la licencia |
| ***24.Artikulua. Exekuzio Subsidiarioa***<br><br>Ordenantza honetan jasotako kasuetan bide publikoan jarritako elementuak kentzeko udal-aginduari kasurik egin ezean, Udalak berak kendu ahal izango ditu, titularrak ordaindu beharko dituelarik eragindako gastu guztiak. Gastu horiek eta gainontzeko tasak ordaindu ezean ezingo du titularrak kendutako elementurik berreskuratu. Horretarako 6 hilabeteko epea izango du, gainera.<br><br>6 hilabetetako epe hori pasa eta gero, interesdunak ez baditu elementuok jaso, Udalak suntsitu, berrerabili edo laga egingo ditu. | | ***Artículo 24. Ejecución Subsidiaria***<br><br>En caso de incumplimiento de la orden municipal de retirada de los elementos instalados en la vía pública en los supuestos contemplados en la presente Ordenanza, el Ayuntamiento podrá proceder a la retirada de estos, siendo a cuenta del titular todos los gastos ocasionados. El impago de estos gastos y del resto de las tasas impedirá al titular recuperar los elementos retirados. Para ello dispondrá, además, de un plazo de 6 meses.<br><br>Transcurrido dicho plazo de 6 meses sin que el interesado los haya recogido, el Ayuntamiento procederá a su destrucción, reutilización o cesión. |
| ***25.Artikulua. Arau-hausteak.***<br><br>1. Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.<br><br>2. **Arau-hauste arinak** dira: | | ***Artículo 25. Infracciones.***<br><br>1. Las infracciones se clasifican en leves, graves y muy graves.<br><br>2. Son **infracciones leves**: |

| | | |
|---|---|---|
| a. Irekitzeko edo ixteko ordutegia ez betetzea, ordubetera arte. | | a. Incumplimiento del horario de apertura o cierre, hasta una hora. |
| b. Elementuak kokatzea baimendutako eremutik kanpo edo adierazitako azalera baino gehiago okupatuta. | | b. Ubicar los elementos fuera de la zona autorizada u ocupando más superficie de la indicada. |
| c. Baimeneko planoa ikusteko moduan ez edukitzea. | | c. No tener visible el plano de la autorización. |
| d. Terraza edo erakuslekuak hartzen duen eremua, egunero instalazioa kendutakoan ez garbitzea. | | d. No limpiar diariamente la zona ocupada por las terrazas o expositores una vez retirada la instalación. |
| e. Elementuak espazio publikoan biltegiratzea. | | e. Almacenamiento de elementos en el espacio público. |
| f. Terraza edo instalazioak jartzea ordenantzan zein udal lizentzian ezarritako baldintza tekniko eta estetikoak bete gabe. | | f. La instalación de terrazas o elementos, incumpliendo las condiciones técnicas y estéticas establecidas en la ordenanza o licencia municipal. |
| g. Udal lizentzian baimendutakoak baino elementu gehiago jartzea edo lizentzian baimendu gabeko elementuak jartzea (musika gailuak, bozgorailuak...). | | g. La ampliación de los elementos autorizados en la licencia municipal o la instalación de elementos no autorizados en la misma (música, altavoces...). |
| h. Produktuak, ontziak edo hondakinak terrazan edo bide publikoko beste edozein gunetan pilatzea. | | h. Acopio de productos, envases o residuos en terraza o en cualquier otra zona de la vía pública. |
| i. Oinezkoen joan-etorriak bermatzeko ordenantza honetan adierazi diren neurriak ez betetzea. | | i. El incumplimiento de las medidas señaladas en esta Ordenanza para garantizar el tránsito peatonal. |
| j. Larritzat edo oso larritzat hartzen ez diren Ordenantza honen beste ez-betetze guztiak, beti ere, asmo txarrik edo ez-betetzean errepikapenik ez dagoenean. | | j. Cualquier otro incumplimiento de esta Ordenanza que no tenga la consideración de grave o muy grave, siempre que no exista mala fe o reiteración en el incumplimiento. |

| | | |
|---|---|---|
| 3. **Arau-hauste larriak** dira: | | 3. Son **infracciones graves**: |
| a. Terraza edo bestelako instalazioak udal-lizentziarik gabe jartzea.<br>Behin udal-baimenaren epea pasa edo iraungita instalazio horiek jartzea, lizentziarik gabe terraza edo instalazioak edukitzea bezalakotzat ulertuko da. | | a. La instalación de terrazas u otras instalaciones sin licencia municipal.<br>La instalación de estas instalaciones, una vez transcurrido o caducado el plazo de la autorización municipal, se considerará como la tenencia de terrazas o instalaciones sin licencia. |
| b. Irekitzeko eta ixteko ordutegia ez betetzea, ordubete baino gehiago luzatuta. | | b. El incumplimiento del horario de apertura y cierre con una prolongación superior a una hora. |
| c. Udalak emandako terraza edo instalazioak kentzeko agindua ez betetzea. | | c. El incumplimiento de la orden municipal de retirada de las terrazas o instalaciones. |
| d. Terraza edo bertako elementuak instalatu edo jasotzerakoan bizilagunentzat zarata gogaikarriak sortzea. | | d. Producir ruidos molestos para los vecinos al instalar o recoger la terraza o sus elementos. |
| e. Udal baimeneko planoak adierazitako mugak ez errespetatzea honakoren bat oztopatuz: atarietako sarbideak, ibilgailuen sarbide zein pasabideak, beste lokaletarako sarbideak, zerbitzu publikoetako ibilgailuen geralekuak edo hiri-elementuak oztopatuz. | | e. No respetar los límites que se señalen en el plano de autorización municipal, obstaculizando accesos a portales, accesos y pasos de vehículos, accesos a otros locales, paradas de vehículos de servicios públicos o elementos urbanos. |
| f. Erantzukizun zibileko eta suteen kasurako asegururik ez izatea. | | f. Carecer de seguro de responsabilidad civil e incendio. |
| g. Lizentzia-agiria edo horren kopia eta xehetasun-planoa udal ikuskaritza-zerbitzuari aurkezteari uko egitea. | | g. Negarse a presentar al servicio municipal de inspección el documento de licencia o copia y plano de detalle de esta. |
| h. Terraza edo establezimenduaren kanpo gunean kontzertu edo bestelako ikuskizunak ospatzea, horretarako udal-baimenik gabe. | | h. La celebración de conciertos u otros espectáculos en el espacio exterior de la terraza o establecimiento sin la correspondiente autorización municipal. |

| | | |
|---|---|---|
| i. Bi arau-hauste arin baino gehiago egitea urte beteko epean. Horrek, hirugarren arau-hauste arina larria izatea eragingo du.<br><br>3.**Arau-hauste oso larriak** dira:<br><br>a. Lizentziaren edozein betebehar, debeku edo baldintza ez betetzea, eta ondorioz, bizilagun edo oinezkoen interesari, segurtasunari eta/edo osasunari kalte larriak eragin izana, beti ere, elkarreragin hori behar bezala egiaztatu ondoren.<br><br>b. Espazio publikoetan edo horietako instalazioetan eta elementuetan, izan higigarriak edo higiezinak, hondatze larriak sorraraztea terrazak edo kanpo elementuak jartzeagatik.<br><br>c. Espazio publikoa erabiltzeko eskubidea dutenei erabilera hori eragozten dielako, Udal-agintariak zirkulazio, hirigintza, interes orokor edo udal-interesengatik terrazak eta elementu osagarriak, batzuk edo denak, kentzeko agindua eman eta agindu hori ez betetzea.<br><br>d. Aurreko 12 hilabeteetan 2 arau-hauste larri egin izana. Horrek, hurrengo arau-haustea oso larria izatea ekarriko du. | | i. La comisión de más de dos infracciones leves en el plazo de un año. Esto supondrá que la tercera infracción leve sea grave.<br><br>3. Se consideran **infracciones muy graves**:<br><br>a. El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones, prohibiciones o condiciones de la licencia, debidamente acreditado, que hayan ocasionado daños graves al interés, la seguridad y/o la salud de las vecinas y vecinos, o personas viandantes.<br><br>b. Causar deterioros graves en los espacios públicos o en sus instalaciones y elementos, muebles o inmuebles, por la instalación de terrazas o elementos exteriores.<br><br>c. El incumplimiento de la obligación impuesta por la autoridad municipal de ordenar la retirada de las terrazas y elementos complementarios, algunos o todos ellos, por impedir el derecho de uso del espacio público a quienes tienen derecho a ello, razones de circulación, urbanismo, interés general o municipal.<br><br>d. Haber cometido 2 infracciones graves en los 12 meses anteriores. Esto supondrá que la siguiente infracción sea muy grave. |
| ***26.Artikulua. Zigorrak***<br><br>1. Ordenantza honetako arauak ez betetzeak isun ekonomikoak ekarriko ditu, ondorengo eskalan eta EAEko urteko KPIren igoera aplikatuz: | | ***Artículo 26. Sanciones***<br><br>1. El incumplimiento de las normas de esta Ordenanza dará lugar a la imposición de sanciones económicas, a la siguiente escala y con el incremento del IPC anual de la CAPV: |

| | | |
|---|---|---|
| • **Arau-hauste arinak**: 500 eurotik 750 eurora bitarteko isuna.<br>• **Arau-hauste larriak:** 751 eurotik 1.500 euro bitarteko isuna eta lizentziaren hilabete bateko baliogabetzea ekar lezake. Agindu horri kasurik egin ezean, udal langileek berehala kenduko dute instalazioa, guztiaren gastua baimenaren titularrari egotzita, eta horren faltan, lokalaren titularrari.<br>• **Arau-hauste oso larriak**: 1.501 eurotik 3.000 eurora arteko isuna eta 3 hilabetetako baimen gabetzea. Agindu horri kasurik egin ezean, udal langileek berehala kenduko dute instalazioa, guztiaren gastua lizentziaren titularrari egotzita, eta horren faltan, lokalaren titularrari.<br><br>Bi arau-hauste oso larri 12 hilabetetako epean gauzatuz gero, lizentzia galtzea eta bi urtez, gehienez, berriz ez eskatu ahal izatea ekarri ahal izango du.<br><br>2. Zigorra isunera mugatuko da araua hautsi ondoren instalazioa legeztatzen bada, arau-haustea berriro errepikatzen ez bada edo Udalak egindako eskakizunei kontra egin ez bazaie.<br>3. Aldez aurretik dagokion espedientea tramitatutakoan bakarrik jarri ahalko dira zigorrak. Martxoaren 16ko 1/2023 Legeak, Euskal Autonomi Erkidegoko herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzkoak ezarritakoaren arabera izapidetuko da espedientea. | | • **Infracciones leves**: multa de 500 a 750 euros.<br>• **Las infracciones graves**, con multa de 751 euros a 1.500 euros y con posible suspensión de licencia por un mes. En caso de no atender dicho requerimiento, el personal municipal procederá a la inmediata retirada de la instalación, imputando el gasto de todo ello al titular de la autorización y, en su defecto, al titular del local.<br>• **Infracciones muy graves**: multa de 1.501 a 3.000 euros y la privación del permiso de 3 meses. En caso de no atender dicho requerimiento, el personal municipal procederá a la inmediata retirada de la instalación, imputando el gasto de todo ello al titular de la licencia y, en su defecto, al titular del local.<br>La comisión de dos infracciones muy graves en el plazo de 12 meses podrá dar lugar a la pérdida de la licencia y a la no repetición de la misma durante un máximo de dos años.<br>2. La sanción se limitará a la multa cuando se proceda a la legalización de la instalación tras la comisión de la infracción, no se haya repetido la infracción o no haya habido oposición a los requerimientos formulados por el Ayuntamiento.<br><br>3. Las sanciones sólo podrán imponerse previa tramitación del oportuno expediente. La tramitación del expediente se ajustará a lo establecido en la Ley 1/2023, de 16 de marzo, de la Potestad Sancionadora de las |

| | | |
|---|---|---|
| 4. Erruduntasuna onartzeak eta borondatez ordaintzeak arau-haustea % 50era arte murriztea ekar dezake, lizentziaren titularrak eragindako lehen arau-haustearen kasuan. Bigarren arau-haustetik aurrera, murrizketa % 20koa izango da. | | Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.<br><br>4. El hecho de aceptar la culpabilidad y proceder al pago voluntario podrá suponer una reducción de la infracción de hasta un 50% en el caso de la primera infracción causada por el titular de la licencia. A partir de la segunda infracción, la reducción será del 20%. |
| ***27.Artikulua. Arau-hausteen mailaketa irizpideak***<br><br>Zigorren zenbatekoa ezartzeko, baimenak deuseztatzeko, epe batez baliogabetzeko eta iraungitzeko honako hauek hartuko dira kontuan: nahita egin ote diren, arau-hausteak zenbat denboraz iraun duen, unean unekoa den, noizean behingoa edo errepikatu egin ote den, ez betetzea gertatu zenean zegoen edukiera, egun berezietan gertatu ote zen (tokiko festetan adibidez), eta eragindako kalteen ezaugarriak. | | ***Artículo 27. Criterios de escala de sanción***<br><br>Para la determinación de la cuantía de las sanciones, la anulación de las autorizaciones, la revocación de un plazo y la caducidad, se tendrán en cuenta: la intencionalidad, la duración de la infracción, su carácter puntual, ocasional o reiterado, el aforo existente en el momento de producirse el incumplimiento, si ocurrió en fechas especiales como las fiestas locales y las características de los daños causados. |
| ***28.Artikulua. Fidantzak***<br><br>Ordenantza honetan ezarritako betebeharrak betetzeko berme modura, baimena indarrean sartu dadin, 300 eurotako fidantza ezarri beharko du baimenaren titularrak udalean.<br><br>Egitura egonkor edo perimetroko babes josien bidez estalkia jarrita duten eta plataforma bidez aparkalekuak hartzen dituzten instalazioen kasuan berriz, lizentzia tasarekin batera | | ***Artículo.28 Fianzas***<br><br>Como garantía del cumplimiento de las obligaciones establecidas en la presente Ordenanza, para que la autorización entre en vigor, el titular de la autorización deberá depositar una fianza de 300 euros en el Ayuntamiento.<br><br>En el caso de instalaciones con estructuras estables o cubiertas con protecciones perimetrales, que alberguen aparcamientos |

| | | |
|---|---|---|
| ordaindu beharreko fidantza 600 eurotakoa izango da.<br><br>Borondatez ordaintzeko hilabeteko epea amaitu eta fidantza jarri gabe badago, baimena iraungi egingo da, eta, beraz, interesdunak beste lizentzia bat eskatu beharko du instalazioa jartzeko.<br><br>Fidantza itzuliko da, behin baimenaren titularrak fidantza itzultzeko eskaera egin, eta udaltzaingo edo udal teknikariek egiaztatu ondoren instalazio edo elementu guztiak kendu eta espazio publikoa lehen zegoen bezala gelditu dela. | | con plataforma, la fianza a abonar junto con la tasa de licencia será de 600 euros.<br><br>Transcurrido el plazo de un mes del pago voluntario sin que se haya depositado la fianza, la autorización caducará, por lo que el interesado deberá solicitar una nueva licencia para la instalación.<br><br>La fianza será devuelta una vez que el titular de la autorización solicite la devolución de la misma, y el personal técnico de la policía local o municipal compruebe que todas las instalaciones o elementos han sido retirados, quedando el espacio público en su estado anterior. |
| **XEDAPEN IRAGANKORRAK**<br><br>**Lehena.** Ordenantza hau indarrean sartzean izapidetzen ari diren eskatutako baimenak xedapen hauen arabera izapidetu eta dokumentatu beharko dira.<br><br>**Bigarrena.** Gaur egun indarrean dauden baimenen titularrek, ordenantza honetan ezarritako baldintzetara egokitzeko eskaera egin beharko dute Ordenantza hau indarrean sartu eta 3 hilabeteko epean, gehienez.<br><br>Baimendutako azaleraren egokitzapena egiteko, udalari baimena berritzea eskatu beharko zaio, epe horren barruan, Ordenantza honetan ezarritako baldintzen arabera. | | **DISPOSICION TRANSITORIA**<br><br>**Primero.** Las autorizaciones solicitadas que se encuentren en tramitación a la entrada en vigor de la presente Ordenanza deberán tramitarse y documentarse conforme a estas disposiciones.<br><br>**Segundo.** Las autorizaciones actualmente vigentes deberán adaptarse a las condiciones establecidas en la presente Ordenanza, como máximo, en un plazo de tres meses desde su entrada en vigor.<br><br>Para la adaptación de la superficie autorizada deberá solicitarse al ayuntamiento la renovación de la autorización en dicho plazo, de acuerdo con las condiciones establecidas en la presente Ordenanza. |

| Kodea | AG25/08998 | Udala | Arrasate/Mondragón |
|---|---|---|---|
| CUDO | 000.0055.AAA1DX09.N.noxo | | |
| URL | https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DX09N.noxo | | |

Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.

| | | |
|---|---|---|
| **AZKEN XEDAPENA**<br><br>Ordenantza hau indarrean jarriko da, testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost lan-egunetako epea iragan denean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoaren arabera. | | **DISPOSICION FINAL**<br><br>La presente Ordenanza entrará en vigor una vez transcurrido el plazo de quince días hábiles desde la publicación del texto íntegro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Kodea** | AG25/08998 | **Udala** | Arrasate/Mondragón |
| **CUDO** | 000.0055.AAA1DX09.N.noxo | | |
| **URL** | https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DX09N.noxo | | |

Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.